

# ***Contrast* II azterketa** **Kulturaren eta sormenaren sektoreak eta** **industriak eta berrikuntza:** ekosistemak, motak, neurketa eta inpaktuak



## **Contrast**

Innovation in the Cultural  
and Creative Industries

ICC consultants  
Carrer Sant Lluís, 63, 1.  
solairua  
08024 Bartzelona  
Tel.-zk.: 93 317 89 99  
icc@icc-consultors.com  
www.icc-consultors.com  
IFZ: B-62536909



## **AURKIBIDEA**

### **I. ZATIA. SARRERA**

<b><u>AURKIBIDEA</u></b> .....	2
<b><u>1.Aurkezpena</u></b> .....	6
<b><u>2.Aurrekariak, helburuak eta metodologia</u></b> .....	9
<b><u>3.Eskualdeko testuinguruak</u></b> .....	21
3.1 <u>Lurraldeak, biztanleria eta ekonomia</u> .....	22
3.2 <u>Berrikuntza-maila</u> .....	24
3.2.1 <u>Sormenezko produktuak: begirada orokorra eta KSSIekin lotutako begirada zehatza</u> 28	
3.3 <u>Eskualdeko testuinguruaren sintesia</u> .....	32
<b><u>4.KSSIak eta berrikuntza</u></b> .....	36
4.1 <u>KSSIen monitorizazioa eta berrikuntza</u> .....	37
4.2 <u>Eskualdeko ikuspegi estrategikoak</u> .....	39
4.3 <u>Berrikuntza-ingurunea</u> .....	43
4.3.1 <u>KSSIen eta berrikuntzaren egoeraren balorazioa</u> .....	43
4.3.2 <u>Berrikuntzaren baldintzak eta babesak</u> .....	48
4.3.3 <u>Alderdi interesdunak</u> .....	50
4.4 <u>Berrikuntzaren ezaugarriak</u> .....	56
4.4.1 <u>Berrikuntza-motak</u> .....	56
4.4.2 <u>Prozedurak eta mekanismoak</u> .....	62
4.4.3 <u>Berritzeko arrazoiak</u> .....	70
4.4.4 <u>Berritzeko zailtasunak</u> .....	71
4.5 <u>Emaitzen neurketa, inpaktuak eta berrikuntzaren balioa</u> .....	73

4.5.1	<u>Begirada orokorra</u> .....	73
4.5.2	<u>Inpaktu-alderdi estandarrek</u> .....	75
4.5.3	<u>Balio intrintsekoa eta balio sozial partekatua</u> .....	80
<b>5.</b>	<b><u>Joerak, motak eta berezitasunak</u></b> .....	<b>83</b>
5.1	<u>Berrikuntza-ekosistemak</u> .....	84
5.1.1	<u>Berrikuntza-ekosistemaren elementu orokorrak</u> .....	84
5.1.2	<u>Arreta berrikuntza-ekosistemekin lotutako dibertsitatean</u> .....	88
5.2	<u>KSSIetako berrikuntzaren motak eta balioa</u> .....	101
5.2.1	<u>KSSIetan berritzen: panoramika orokorra</u> .....	101
5.2.2	<u>Sakonago: berrikuntzaren ezaugarriak eragilearen eta testuinguruaren arabera</u>	106
<b>6.</b>	<b><u>KSSIetako berrikuntzaren neurketa: irismena eta mugak</u></b> .....	<b>120</b>
<b>7.</b>	<b><u>Nabarmentzekoak</u></b> .....	<b>134</b>
7.1	<u>Laburbilduma: helburuak, metodologia eta hipotesiak</u> .....	134
7.2	<u>Testuinguruarekin eta ekosistemekin lotutako aurkikuntzak</u> .....	135
7.3	<u>Berrikuntza-motekin lotutako aurkikuntzak</u> .....	138
7.4	<u>KSSIetako berrikuntzaren neurketari buruzko oharrak</u> .....	140

## ERANSKINAK



# **I. ZATIA SARRERA**





# 1. Aurkezpena

Txosten honetan KSIei eta berrikuntzari buruzko *Contrast 2* azterketaren emaitzak biltzen eta analizatzen dira. Lau zati handitan egituratuta dago: sarrera, emaitzak, analisi sakona eta azken gogoetak.

Sarrera moduan, lehenik eta behin, Aurrekariak, helburuak eta metodologia aurkezten dira, irakurlea azterketaren testuinguruan kokatzeko.

«Emaitzak» zatiaren hasieran, aztertutako lurraldeen testuinguruaren berri ematen da (Eskualdeko testuinguruak), honako hauek kontuan izanik: lehenik, lurraldeei, biztanleriari eta ekonomiari buruzko datu sekundarioak eta, bigarrenik, berrikuntzari buruzkoak, panoramika orokor bat eskainiz, *Global Innovation Index* edo *berrikuntza-indize globaletik* ateratako datuekin. Atal hori ixteko, testuinguruaren laburpen orokorra egiten da, KSSIen eremu zehatza hobeto ulertzeko.

Ondoren, txostenak azterketaren emaitza orokorretan sakontzen du, «Berrikuntza eta KSSIak» atalean. Bertan, KSSIetan berrikuntza aztertzeko alderdi garrantzitsu guztiak jasotzen dira, lurralde bakoitzean inplikaturiko eragileei eta politikei buruzko informazioa, haien praktikak eta kulturaren eta sormenaren sektoreko erakunde berritzaileak konbinatuz. Begirada deskribatzaile bat (grafikoak, estatistika deskribatzaileak..) eskaintzen da, bi tresna nagusitan oinarrituta: eskualdeko koordinatzaileei eskualdeko testuinguruei buruz egindako galde-sorta eta KSSIetako eragileei sortzen duten berrikuntzari buruz egindakoa. Horrek KSSIetako berrikuntzaren alderdi garrantzitsu guztiei bi mailatan heltzea dakar.


Hala, «KSSIen monitorizazioa eta berrikuntza» apartatuan, KSSIak edo berrikuntza monitorizatzen duten tresnarik eta eragilerik badagoen aztertzen da. «Eskualdeko ikuspegi estrategikoak» apartatuan, administrazioen ikuspegi estrategiko motari buruz gogoeta egiten da. «Berrikuntza-ingurunea» atalean, sektoreari eta haren berrikuntzari laguntzeko eragileei eta erabilitako tresna-motei buruz hausnartzen da. «Berrikuntzaren ezaugarriak» apartatuan, zer berrikuntza-mota egiten diren eta zergatik aztertzen da. Azkenik, «Emitzen neurketa, inpaktuak eta berrikuntzaren balioa» apartatuan, sektoreak berrikuntzaren bidez gizartean, ekonomian eta ingurumenean sortzen dituen kanpo-efektu positiboez hausnartzen da.

Hirugarren zatian («Analisi sakona»), ikuspegi interpretatzailea ematen da. Aurreko apartatuetan aurkeztutako emaitzetatik abiatuta, begirada eta analisi sakonagoak egiten dira, emaitzak zabalduz eta gurutzatuz, baita interpretatzeko gakoak eta gako kontzeptualak ekarri ere, gaiaren egoera hobeto ulertarazteko asmoz. Bi alderdi handik egituratzen dute zatia: batetik, «Joerak, motak eta berezitasunak» eta, bestetik, «KSSIetako berrikuntzaren neurketa: irismena eta mugak». Lehen apartatua bitan zatituta dago: «Berrikuntza-ekosistemak» eta «KSSIetako berrikuntzaren motak eta balioak». Atal horietako bakoitzean, edukia bi azpiapartatutan egituratuta dago: bata, aurreko emaitzak laburbiltzeko eta bestea, analisisan sakontzeko. KSSIetako berrikuntzaren neurketari buruzko apartatuan, KSSIetako neurketarekin lotutako alderdi zehatzei heltzen zaie, erakundeei egindako inkestan lortutako emaitzen bitartez, eta erabilitako diseinua eta adierazleak egokiak izan diren baloratzen da. KSSIak ezarritako neurketa-esparruetara egokitzeko moduari buruz eta haien berezitasunari buruz hausnartzen da.

Azkenik, laugarren zatian (Amaierako sintesia), hasierako helburuak berrikusi eta funtsezko aurkikuntzak laburbiltzen dira.

# 2. Aurrekariak, helburuak eta metodologia

## 1. diagrama. Prozesu metodologikoaren sintesia



Iturria: geuk egina



## ***Azterketaren jatorria***

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saila kulturaren eta sormenaren industriekin (KSIekin) lotutako lan-ibilbide bat bultzatzen ari da RIS3 estrategiaren barruan, aukera-eremu gisa.

2019an, Euskadiko kulturaren eta sormenaren sektorean I+G+b eremua (adierazleen bidez) kontzeptualizatzeari eta ustiatzeari buruz gogoeta egiteko prozesu bat hasi zen. Prozesu horri ekiteko arrazoia izan zen sektoreotako datuek I+G+b eremuan defizita adierazten dutela RIS3 estrategian sartutako hiru lehentasun estrategikoekin (fabrikazio aurreratua, energia eta biozientziak eta osasuna) eta lau aukera-esparruetako birekin (elikadura eta hiri-habitatak) erkatuta.

Arazo horretatik abiatuta, lana hasteko, I+G+b eremua kulturaren eta sormenaren sektoreetan aplikatzeko esparru kontzeptual bat garatu zen, honako helburu hauekin:

- > KSSIetan egiten ari den berrikuntzaz sentsibilizatzea, sektore guztietarako neurketa-irizpide homologatu eta estandarizatuen arabera.
- > KSSIen berezitasuna erakustea, berrikuntza kulturalak bereizgarri dituen alderdiak, sektore guztietarako ezarritako esparruetan islatzen ez direnak eta paregabe egiten dituztenak, identifikatuz.

2020an eta 2021ean, gogoeta eta egiaztapenerako prozesu zabal bat egin zen, bi alderditan:

- > KSSIetan I+G+b eremua kontzeptualizatzeko txosten bat idaztea, tokiko adituekin eztabaidatuta. Frogatu zen Europa mailan eta eskualde-mailan zeuden berrikuntza-adierazleek ezin zituztela islatu Euskadiko berrikuntza kulturalaren benetako maila.
- > Txosten horrek nazioarteko proiektu bati leku eman zion. Bertan, kulturaren eta sormenaren sektore eta industrietako (KSSIetako) I+G+b eremuko adituek hori neurtzeko ereduak eta praktikak aztertu eta eztabaidatu zituzten. Ondorioztatu zen nazioarteko kasu-azterketa bat behar zela ikerketa osatzeko eta, beraz, Contrast 1 azterketa pilotua sortu zen.

## ***Helburuak eta hipotesi nagusiak***

Hona hemen Europako 5 eskualdetan egin den eta orain *Contrast 2* izeneko azterketa berriarekin hedatzen ari den azterketa pilotuaren helburuak:

- › KSSIetako proiektu berritzaileek bereizgarri dituzten eta haien garapenari laguntzen dioten elementuak identifikatzea eskualdeko testuinguruan.
- › Berrikuntza-jardunbide egokien analisi konparatiboa egitea bai beste sektore batzuekin bat datozen elementuak bai kulturaren eta sormenaren arloko berrikuntzaren elementu bakanak aurkitzeko.
- › Etorkizunean kulturaren eta sormenaren industrietako berrikuntza monitorizatzeko adierazle operatiboen diseinuan aurrera egitea.

*Contrast I* azterketa pilotuko amaierako txostenean, ondorioztatu zen garrantzitsua dela eskualde bakoitzaren testuinguru orokorrari heltzea. Testuinguruek KSSIen eta haien berrikuntzaren alderdi jakin batzuen azalpenari eragiten diote eta, zeharka, alderdiok azaltzen laguntzen dute, egiturazko baldintzak, aukerak eta mugak uztartzen baitituzte. Ildo horretan, nolabaiteko korrelazioa ikusi zen hiriei eta sozioekonomiari dagokien testuinguru orokorraren eta KSSIekin eta haien berrikuntzarekin lotutako alderdi batzuen artean. Beraz, etorkizunerako, garrantzitsutzat jo zen eskualdeko testuinguruaren ezaugarri orokorren zehaztapenean sakontzea eta testuinguruok sailkatzeko tipologia bat sortzea. Tipologia horrek, *Contrast I* azterketan, Europako ongizate-sistemetak sailkapen-eskema hartu zuen abiapuntutzat.

*Contrast II* azterketa 2022an sortu zen, KSIetako berrikuntzaren eskualdeko testuinguruaren analisiaren bertsio zabaldu gisa, oraingoan mundu-mailan begiratuta. Helburu berberak dauzka

(berrikuntza-ekosistemak arakatu eta deskribatzea) eta, berriro ere, testuinguruaren eraginari buruzko hipotesi orokorra proposatzen du, alegia:

- > Testuinguru globalak testuinguru zehatzean duen eragina: badago korrelazioa bai sozioekonomiaren aldetik bai oro har berrikuntzaren aldetik aurreratutako testuinguru baten eta KSSIen eta haien berrikuntzaren garapen zehatzaren artean.
- > Testuinguru zehatzaren eragina: KSSIetako berrikuntza-ekosistema mota zehatz bakoitzak emaitza eta inpaktu desberdinak sortzen ditu.

## Metodologia

Bere helburuak lortzeko, *Contrast* azterketa bi euskarritan oinarritzen da:

- A. KSIetako berrikuntzaren testuinguruen edo ekosistemen analisia.
- B. KSIetako berrikuntzaren kasu edo eragileen analisia.

Hala, proiektu guztiaren hariak bi alderdi lotzen ditu: batetik, politikarekin, administrazioarekin eta estrategiarekin lotutakoa; eta, bestetik, landako eragileekin lotutakoa (enpresak, elkarteak, GKEak...).

**Nabarmentzekoa da *Contrast* II proiektua ez dela bukatzen txosten honekin. Konferentzia ireki bat egongo da urriaren 25ean eta 26an. Bertan, parte hartzen ari diren eskualdeek eta erakundeek, KSSIetako adituekin batera, azterketa honen emaitzak eztabaidatu eta amaierako ondorioak ateratzen lagunduko dute.**

Hurbilketa metodologikoa hiru urratsetan egin da:

1. Hautatutako eskualdeetako bakoitzerako koordinatzaile bat hautatzea. Koordinatzaileok modu desberdinetan daude beren eskualdeetako KSIetako ekosistemekin konektatuta (arduradun publikoak, aholkulariak, ikertzaileak...).

1 taula. Eskualdeen laginaren ezaugarria

Eremu globala	Europa	Afrika	Asia eta Ozeano Barea	Ipar Amerika	Latinoamerik
---------------	--------	--------	-----------------------	--------------	--------------

Herrialdea	Alemania	Erresuma Batua	Espainia	Danimarka	Estonia	Finlandia	Portugal	Italia	Kenya	Hegoafrika	Uganda	India	Australia	Ameriketako Estatu Batuak	Ameriketako Estatu Batuak	Kolonbia
Kasu-mota	Eskualdea	Eskualdea	Eskualdea	Herrialdea	Herrialdea	Herrialdea	Eskualdea	Eskualdea	Herrialdea	Eskualdea	Herrialdea	Eskualdea	Eskualdea	Eskualdea	Eskualdea	Eskualdea
Kasua	Baden-Württemberg	Cardiff Capital Region (CCR)	Valentziako Erkidegoa	Danimarka	Estonia	Finlandia	Região do Norte	Puglia	Kenya	Lurmutur Mendebaldea	Uganda	Karnataka	Hego Australia	Washington	Kalifornia	Antioquia

Iturria: geuk egina

2. Koordinatzaileok beren eskualdeei buruzko galde-sorta bati erantzun diote. Bertan, alderdi hauek jaso dira: informazio-iturriak, eskualdearen posizionamendu orokorra berrikuntzari eta KSSIei dagokienez, ikuspegi estrategiko orokorra eta berrikuntza-ingurunearen ezaugarriak. Gainera, nork bere eskualdeko 5 eta 10 praktika bitartean hautatu ditu bere irizpide informatuan oinarrituta.
3. 88 erakundeok lagin handi eta esanguratsua osatzen dute ikuspuntu teoriko eta kualitatibotik (ikusitako laginaren ezaugarriak 1. irudian eta erakunde parte-hartzaileak 1. taulan) eta berariazko galde-sorta bati erantzun diote, zeinean berrikuntza-ingurunearen ezaugarriak, egiten dituzten berrikuntza-motak eta berrikuntzak sortzen dituen emaitzei eta inpaktuei buruzko informazioa ere eman duten.

Beraz, prozesua bi alderditan egindako landa-lanaren bidez eratu da, bakoitza bere galde-sortarekin, non galdera itxiak eta irekiak konbinatu diren (eskualdeak/koordinatzaileak eta

kasuak/berrikuntza-eragileak). Bi galde-sortak eranskin metodologikoan (1. eranskina) kontsulta daitezke.

Garrantzitsua da aipatzea erakunde honen galde-sortaren diseinua KSSIetako berrikuntza neurtzeko proposamena dela berez. *Contrast I* azterketan ikasitako bidez eta proiektuaren esparru teorikoan oinarrituta, KSSIetako berrikuntza aztertzeko galdera-multzo bat diseinatu da, bai berrikuntza neurtzeko bai berrikuntzarako erronkez eta aukerez hausnartzeko helburuarekin. Hori dela eta, galde-sortan orobat galdetu zen zer puntutaraino sentitzen ziren parte-hartzaileak proposaturiko itemak ordezkaturik. Gainera, arrazoi berarengatik, txostenean apartatu bat sartu da (6. apartatua, «KSSIetako berrikuntzaren neurketa: irismena eta mugak») zeinean aztertzen baita galde-sorta helburu horretarako egokia izan den.

## 1. irudia. Erakunde parte-hartzaileen zerrenda eta laginaren ezaugarriak.


### Eskualdeen ordenamendu alfabetikoan antolatutako zerrenda:

1. Realities Extended at the University of Adelaide (Hego Australia)
2. Flinders University - The Void (Hego Australia)
3. Light ADL (Hego Australia)
4. Illuminate Adelaide (Hego Australia)
5. ModelFarm (Hego Australia)
6. Corporación Hérmessus (Antioquia)
7. Museo de Antioquia (Antioquia)
8. Orquesta Filarmónica de Medellín (Antioquia)
9. Pantolocos de la Corporación Casa Arte (Antioquia)
10. Impact Hub Medellín (Antioquia)
11. diidoo® (Antioquia)
12. Popakademie Baden-Württemberg GmbH (Baden-Württemberg)
13. NEXT Mannheim (Baden-Württemberg)
14. Hochschule der Medien Stuttgart (Baden-Württemberg)
15. K3 Kultur- und Kreativwirtschaftsbüro Karlsruhe (Baden-Württemberg)
16. Wirtschaft und Stadtmarketing Pforzheim /EMMA - Kreativzentrum Pforzheim (Baden-Württemberg)
17. MFG Baden-Württemberg (Baden-Württemberg)
18. Virtual Dimension Center (VDC) w.V. (Baden-Württemberg)
19. Tinkertank, Interactive Media Foundation gGmbH (Baden-Württemberg)
20. AMCRS - Animation Media Cluster Region Stuttgart (Baden-Württemberg)
21. SkySpirit GmbH (Baden-Württemberg)
22. Center for Cultural Innovation (Kalifornia)
23. Destination Crenshaw (Kalifornia)
24. Arts for LA (Kalifornia)
25. BRIC Foundation (Kalifornia)
26. BWLB Ltd (Cardiff CCR)
27. Object Matrix (Cardiff CCR)
28. Hijinx Theatre (Cardiff CCR)
29. edge21 studio ltd (Cardiff CCR)
30. Y Pod Cyf. (Cardiff CCR)
31. gorilla TV (Cardiff CCR)
32. Palau de les Arts Reina Sofia, Fundació de la Comunitat Valenciana (Valentziako Erkidegoa)
33. Fira Trovam (Valentziako Erkidegoa)
34. IVAM (Valentziako Erkidegoa)
35. Centre del Carme Cultura Contemporània - Consorci de Museus de la Comunitat Valenciana (Valentziako Erkidegoa)
36. Institut Valencià de Cultura (Valentziako Erkidegoa)
37. Espai LaGranja- IVC (Valentziako Erkidegoa)
38. Espai d'Art Contemporani de Castelló (Valentziako Erkidegoa)
39. Marahaba Music expo (Uganda [Ekialdeko Afrika])
40. Malafi'arts production (Uganda [Ekialdeko Afrika])
41. Orupaap Cultural Foundation (Uganda [Ekialdeko Afrika])
42. Culture and Development East Africa (CDEA) (Uganda [Ekialdeko Afrika])
43. MOTIV (Uganda)
44. Quad - A Group (Uganda)
45. The GoDown Arts Centre (Uganda)
46. Filaret OÜ (Estonia)
47. Aus Design OÜ (Estonia)
48. Myceen (Estonia)
49. RAIKU Packaging (Estonia)
50. The Ladies Association of Kuopio / Design Union (Finlandia)
51. Helsinki Xr Center/Metropolia University of Applied sciences (Finlandia)
52. Creative Export Innovations (Finlandia)
53. Uniarts Helsinki (Finlandia)
54. Aalto University (Finlandia)
55. VIPROF ELECTRONICS (Karnataka)
56. Indian Institute of Science (Karnataka)
57. Edunet Foundation (Karnataka)
58. BlackRhino VR (Kenya)
59. Kenia Private Sector Alliance (Kenya)
60. Standup Collective (Kenya)
61. THE ART OF MUSIC FOUNDATION (Kenya)
62. Circle Art Agency (Kenya)
63. Art at Work Limited (Kenya)
64. Kariboo Creative (Kenya)
65. Trio Media Kenia (Kenya)
66. TIKITWORLD (Região do Norte)
67. Canal180 (Região do Norte)
68. Everythink, Lda (Região do Norte)
69. 4Humanz - Consultancy and research for humanz (Região do Norte)
70. Applicazioni di Ingegneria ed Informatica s.r.l. (Puglia)
71. Espero srl (Puglia)
72. Didap s.r.l.s. (Puglia)
73. Università del Salento (Puglia)
74. Tou.Play ETS (Puglia)
75. IMAGO (Puglia)
76. 34° Fuso APS (Puglia)
77. Chocolate Tribe (Lurmutur Mendebaldea)
78. The Craft and Design Institute (Lurmutur Mendebaldea)
79. Nyamakop (Lurmutur Mendebaldea)
80. Empatheatre (Lurmutur Mendebaldea)
81. Free Lives (Lurmutur Mendebaldea)
82. The Centre for the Less Good Idea (Lurmutur Mendebaldea)
83. Path with Art (Washington)
84. Terrain Programs dba Terrain (Washington)
85. Cultural Space Agency (Washington)
86. Mighty Tieton Production (Washington)
87. TwispWorks Foundation (Washington)
88. King County Creative (Washington)




**Erakundeen laginaren ezaugarriak**


### Sortze-urtea




### Publikoa/Pribatua




### Forma juridikoa (pribatua)




### Enplegatutako



### Sektorea



### Balio-katea



Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako *Contrast II* inkesta)

## II. ZATIA EMAITZAK

### 3. Eskualdeko testuinguruak

Emaitzei buruzko lehen apartatu honetan, hautatutako eskualdeetako inguruneen ezaugarriak oro har zehazten dira. Lehenik eta behin, lurraldearekin, biztanleriarekin eta ekonomiarekin lotutako aldagaiak deskribatzen dira, nagusiki Nazio Batuek eta Mundu Bankuak emandako informazio sekundarioan oinarrituta.

Bigarrenik, ingurune orokor bakoitzaren ezaugarriak berrikuntzari begira ere zehazten dira. Ildo horretan, eskualde bakoitzeko berrikuntza-testuinguru orokorrak 2022ko *berrikuntza-indize globalaren* emaitzen bidez deskribatzen dira. Berrikuntza-indize globalak sormen-emaitzei buruzko berariazko atal bat barne hartzen duenez, ingurune bakoitzaren emaitzak horri dagokionez ere deskribatzen dira. Horrek adierazle objektiboetan oinarritutako kanpo-informazioa ematen du, zeinak azterketan eskualdeko koordinatzaileek emandako informazioaren bidez bildutako informazio primarioa osatuko baitu.

Ezaugarri orokorretan oinarritutako informazio sekundario hori guztia herrialde-mailan analizatzen da. Horixe da eskualde guztietarako informazio komuna eta estandarizatua aurkitu daitekeen gutxieneko informazio-unitatea; izan ere, eskualdeok lurralde-maila desberdinak dauzkate, 1. taulan erakusten bezala (estatuak, eskualdeak eta herrialdeak).

Azken azpiapartatuan, testuinguruon sintesia egiten da. Sintesi hori, amaierako gogoetan, erabilgarria izango da lortutako emaitzak hobeto ulertzeko.

Hala, atal horrek garrantzia hartzen du testuinguru orokorrak KSSIetako berrikuntzaren testuinguru zehatzean duen eraginari buruzko hipotesia arakatzeko.

## 3.1 Lurraldeak, biztanleria eta ekonomia

Ikusi den moduan, analizatutako eskualdeak 5 eremu globaletan daude (Europa, Afrika, Asia eta Ozeano Barea, Ipar Amerika eta Latinoamerika). Testuinguruak oso askotarikoak dira, bai sistema politiko eta ongizate-sistemak bai haien ekonomikoek munduan dituzten munduko postuak oso desberdinak direlako, baita eremu global beraren barruan ere.

2. eranskinean, demografiaren eta ekonomiaren oinarritzko alderdietako adierazleen laburpena kontsulta daiteke, baita gizartearen, hezkuntzaren, ingurumenaren eta osasunaren alderdietako adierazleena ere:

→ Demografiari dagokionez, hiri-biztanleriaren ehunekoaren desberdintasunak nabarmentzen dira. Laginean, hiri-biztanleria % 69,1 da batez beste, baina testuinguru batzuetan ehunekoa altuagoa da eta beste batzuetan, aldiz, baxuagoa edo askoz ere baxuagoa. Europako herrialdeetan, % 77,6ra heltzen da. Afrikako herrialdeetan, % 39,6 da oraindik ere (Hegoafrikak batezbestekoaren gainean jarraitzen du; Kenyak eta Ugandak, berriz, batezbestekoaren azpian). Indiaren ehunekoa antzekoa da, % 34,5, baina eremu global bereko beste herrialde batena, hots, Australiarena, oso desberdina da, % 86,1.

→ Ekonomiaren eta gizartearen alderdian, *per capita* BPGd-ak ere oso errealitate desberdinak agerrarazten ditu eredu berari jarraituz, eta gauza bera ikusten da zerbitzuetako eta industriako enpleguaren ehunekoan.

*Per capita* BPGd-a, Ameriketako Estatu Batuetan, gutxi gorabehera 76.000 dolar estatubatuarretara heltzen da; Europako herrialdeetan, 54.500 dolar estatubatuarretara batez beste; eta Afrikakoetan, berriz, batezbestekoa 8.000 dolar estatubatuar dira.

Indiaren *per capita* BPGd-a ere 8.000 US\$ da; Australiarena, 62.500 US\$ gutxi gorabehera; eta Kolonbiarena erdian geratzen da, gutxi gorabehera 20.000 US\$-rekin.

→ Giniren koefizienteak ere gizartearekin eta ongizatearekin lotutako errealitate desberdinak ematen ditu aditzera. Europako herrialdeek desparekotasun-tasa baxuenak daukate: 31,8 batez beste Giniren koefizientearen arabera; Afrikako herrialdeek, aldiz, 48,8. Asia eta Ozeano Bareko bi herrialdeena 35 inguru da; Ameriketako Estatu Batuenak, 39,7 inguru; eta Kolonbiarena, 51,5.

Alderdi ekonomikoan, garrantzitsua da azpimarratzea herrialde batzuek kanpo-zor handia daukatela, munduko egoera ekonomikoan dituzten postu desberdinen erakusgarri. Horrelakoak dira Kolonbia, India, Kenya, Hegoafrika eta Uganda.

→ Hezkuntza-alderdiari dagokionez, Afrikako herrialdeek daukate, Indiarekin batera, eskolatze-urteen batez besteko kopuru txikiena, hain zuzen ere, 10,1 (Uganda) eta 13,6 (Hegoafrika). Europako herrialdeetan, aldiz, kopurua 17,3 da; Australian, 16,5; eta Ameriketako Estatu Batuetan, 16,3.

→ Azkenik, beste alderdi batzuetan ere ikusten dira ezaugarri desberdinak, hala nola ingurumenean eta osasunean. Kutsadura-arazoak hiri-biztanleriaren ehunekoarekin eta ekonomia-motarekin lotuta daude, besteak beste. Adibideak konparatzeko, CO<sub>2</sub>-agatiko kutsadura Afrikako herrialdeetan da baxuena eta Australian eta Ameriketako Estatu Batuetan altuena; Europa, berriz, erdian dago. Aitzitik, intentsitate energetiko primarioak kontrako joera dauka.

Adierazle guztiek kasu bakoitzeko herrialdeen postu ekonomiko eta sozialak zehazten laguntzen dute eta iradokitzen dute testuinguru orokorrek eragin desberdina izan dezaketela KSSIei dagozkien kontu zehatzetan.

## 3.2 Berrikuntza-maila

Berrikuntza-indize globala (GII) World Intellectual Property Organization-ek (WIPO) edo Jabetza Intelektualaren Munduko Erakundeak (JIME) sustatutako indizea da eta bereziki baliotsua da herrialdeak beren berrikuntza-mailaren arabera deskribatzeko oinarri komuna eskaintzen duelako. Horrek kasu bakoitzean eskualdeko testuingurua hobeto ulertzea ahalbidetzen du, berrikuntzari buruzko informazioa zenbait maila eta alderditan aurkezteko balio baitu (informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi 3. eranskina.)

**2 taula. Kasu bakoitzeko GII indizearen emaitza (herrialdeka) eta proposatutako sailkapena**

Herrialdea	Puntuazioa	Postua (guztira = 132 herrialde)	GII indizearen arabeko sailkapena
<b>AEB</b>	61,78	2	Liderra berrikuntzan
<b>Erresuma Batua</b>	59,73	4	Liderra berrikuntzan
<b>Alemania</b>	57,23	8	Liderra berrikuntzan
<b>Finlandia</b>	56,88	9	Liderra berrikuntzan
<b>Danimarka</b>	55,93	10	Liderra berrikuntzan
<b>Estonia</b>	50,19	18	Liderra berrikuntzan

<b>Australia</b>	47,14	25	Liderra berrikuntzan
<b>Italia</b>	46,06	28	Haren garapen-mailaren itxaropenekin bat datorren emaitza
<b>Espainia</b>	44,62	29	Haren garapen-mailaren itxaropenekin bat datorren emaitza
<b>Portugal</b>	42,11	32	Haren garapen-mailaren itxaropenekin bat datorren emaitza
<b>India</b>	36,57	40	Haren garapen-mailaren itxaropenak gainditzen dituen emaitza
<b>Hegoafrika</b>	29,82	61	Haren garapen-mailaren itxaropenak gainditzen dituen emaitza
<b>Kolonbia</b>	29,22	63	Haren garapen-mailaren itxaropenekin bat datorren emaitza
<b>Kenya</b>	22,75	88	Haren garapen-mailaren itxaropenak gainditzen dituen emaitza
<b>Uganda</b>	15,66	119	Haren garapen-mailaren itxaropenekin bat datorren emaitza

Iturria: geuk egina, 2022ko *berrikuntza-indize globalari* buruzko datuetan oinarrituta

2. taulan ikusten den moduan, azterketan parte hartu duten eskualdeek profil eta berrikuntza-maila desberdinak daukate: batzuk liderrak dira eta beste batzuk goraka ari dira. Berrikuntzaren testuinguru zabalagoan, berrikuntza-indize globalaren arabera, zazpi herrialde gailentzen dira berrikuntza-profilean liderrak izateagatik (AEB, Erresuma Batua, Alemania, Finlandia, Danimarka, Estonia eta Australia). Italia, Espainia eta Portugal elkarrengandik oso hurbil eta lidergo-postu batetik hurbil daude, baina hobe litzateke «profil aurreratu» gisa sailkatzea. India tarteko leku batean dago; izan ere, lider argia da bere eskualdean, baina ez ikuspegi globaletik begiratuta. Hegoafrikarekin, Kolonbiarekin, Kenyarekin eta Ugandarekin batera, berrikuntza-profil moderatuen eta goraka ari diren profilen bloke heterogeneoa osatzen dute.

*Berrikuntza-indize globalak* oso aldagai-multzo handia neurtzen du, zazpi alderdi erabiliz, besteak beste, ingurune politiko eta administratiboarekin lotutako alderdiak, jasangarritasuna, negozioen ezaugarriak eta ezagutza edo hezkuntza (adierazleei buruzko xehetasunak 3.



eranskinean kontsulta daitezke). Horietako lauri berrikuntzarako «input» esaten zaie eta biri, berriz, berrikuntzaren «output».

Izan ere, *outputen* azpialderdietako batek kulturaren eta sormenaren arloko ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenarekin eta esportazioarekin du zerikusia. Horrek azterketa hau osatzeko informazio baliotsua dakarrenez, kapitulu honetako berariazko azpiapartatu batean aztertuko da laburki.

Hori baino lehen, 3. taulan laburbiltzen da zer postutan dagoen herrialde bakoitza *berrikuntza-indize globalaren* zazpi alderdietako bakoitzean:

3 taula. Herrialde bakoitzaren postua *berrikuntza-indize globalean* eta alderdi bakoitzean lortutako puntuazioak

Herrialdeak	GII postua	Sarrerak					Irteerak	
		Erakundeak	Giza kapitala eta ikerketa	Azpiegiturak	Merkatuaren sofistikazioa	Negozioaren sofistikazioa	Ezagutza eta teknologia	Sormen-emaitzak
AEB	2	80,9	59,9	58,7	80,8	64,5	60,8	48,4
Erresuma Batua	4	74,5	61,5	62,9	67,6	51,7	55,7	55,9
Alemania	8	76,5	64,1	57,7	53,7	52,7	54,8	52,3
Finlandia	9	82,5	60,6	65,9	51,7	61,6	59,6	39,0

<b>Danimarka</b>	<b>10</b>	64,5	43,3	58,3	29,6	46,2	44,7	29,9
<b>Estonia</b>	<b>18</b>	82,2	42,7	61,6	68,8	48,3	41,2	38,2
<b>Australia</b>	<b>25</b>	77,2	61,7	58,8	50,2	48,6	32,2	37,8
<b>Italia</b>	<b>28</b>	59,0	46,8	57,4	41,9	39,3	45,2	41,3
<b>Espainia</b>	<b>29</b>	66,8	47,7	59,8	43,4	41,4	38,1	36,8
<b>Portugal</b>	<b>32</b>	62,5	49,4	53,4	38,8	38,6	33,3	38,1
<b>India</b>	<b>40</b>	60,1	38,3	40,7	50,3	30,9	33,8	24,3
<b>Hegoafrika</b>	<b>61</b>	51,9	26,9	40,7	40,4	27,6	24,7	19,5
<b>Kolonbia</b>	<b>63</b>	54,6	27,4	46,0	32,5	35,6	20,5	17,9
<b>Kenya</b>	<b>88</b>	51,8	14,0	30,3	19,7	24,7	19,2	15,6
<b>Uganda</b>	<b>119</b>	57,5	10,4	28,7	11,0	16,0	11,0	2,2

Iturria: geuk egina, 2022ko berrikuntza-indize globalari buruzko datuetan oinarrituta

### **3.2.1 Sormenezko produktuak: begirada orokorra eta KSSIekin lotutako begirada zehatza**

«Sormen-emaitzak» alderdiaren hiru azpialderdiek («aktibo ukiezinak/*intangible assets*», «sormenezko ondasunak eta zerbitzuak/*creative goods and services*» eta «lineako sormena/*online creativity*») zenbait eremu hartzen dituzte barne, KSSIen ohiko zedarriztapen sektorialaz haraindi doan sormen-kontzeptua baitute, (patente eta marka komertzialekin lotutako gaiak eta software-produktuak barne), baina azpialderdi batek («sormenezko ondasunak eta zerbitzuak») lotura estua du produktu eta zerbitzu kulturalekin (kulturaren eta sormenaren arloko zerbitzuen

esportazioak, ikus-entzunezko produkzio nazionalak, entretenimenduaren eta komunikabideen merkatua, arte grafikoen pisua eta sormenezko ondasunen esportazioa).

Emaitzei dagokienez sektorearen indarraren erretratu xehea ez den arren, orientazio erabilgarria ezartzen du, kontuan hartuta zaila izaten dela KSSIen eremuan nazioarteko mailan informazio konparagarria aurkitzea.

Postu globala, *sormen-emaitzak* alderdiko postua eta *sormenezko ondasunak eta zerbitzuak* azpialderdiko postua<sup>1</sup> konparatuta, ikus daiteke «sormenezko ondasunak eta zerbitzuak» azpialderdiaren kontzeptu zehatzean herrialde gehienek galtzen dituztela postuak.

4. taulatik ondorioztatzen den moduan, lagineko herrialdeak, batez beste, 35,73 postu orokorrean, *sormen-emaitzak* alderdiko 37,8 postuan eta *sormenezko ondasunak eta zerbitzuak* azpialderdiko 47,57 postuan daude. *Sormen-emaitzak* alderdiko galera oso txikia da, baina esanguratsua gertatzen da *sormenezko ondasunak eta zerbitzuak* azpialderdian.

4 taula. Herrialde bakoitzak «sormen-emaitzak» alderdian, «sormenezko ondasunak eta zerbitzuak» azpialderdian eta oro har dituzten postu konparatuak, «sormen-emaitzak» alderdiko puntuazio zehatzekin batera

	Postuak			Puntuazio zehatzak			
	Sormen-emaitzak, postu orokorra	Sormenezko ondasunak eta zerbitzuak, postu zehatza	GII postua	Sormen-emaitzak (alderdia)	Aktibo ukiezinak (azpialderdia)	Sormenezko ondasunak eta zerbitzuak (azpialderdia)	Lineako sormena (azpialderdia)
<b>Erresuma Batua</b>	<b>3</b>	<b>5</b>	<b>4</b>	<b>55,9</b>	68,3	42,3	44,8
<b>Alemania</b>	<b>7</b>	<b>34</b>	<b>8</b>	<b>52,3</b>	67,8	28,4	45,2
<b>AEB</b>	<b>12</b>	<b>4</b>	<b>2</b>	<b>48,4</b>	52,8	44,8	43,0
<b>Danimarka</b>	<b>14</b>	<b>21</b>	<b>10</b>	<b>29,9</b>	24,1	40,6	30,9

<sup>1</sup> *Berrikuntza-indize globalaren* egiturari buruzko informazioa 3. eranskinean kontsulta daiteke.

<b>Italia</b>	<b>16</b>	<b>46</b>	<b>28</b>	<b>41,3</b>	62,2	25,3	15,5
<b>Finlandia</b>	<b>18</b>	<b>40</b>	<b>9</b>	<b>39,0</b>	46,0	27,0	36,8
<b>Estonia</b>	<b>24</b>	<b>9</b>	<b>18</b>	<b>38,2</b>	39,6	40,0	33,4
<b>Portugal</b>	<b>25</b>	<b>51</b>	<b>32</b>	<b>38,1</b>	51,2	23,6	26,5
<b>Australia</b>	<b>27</b>	<b>48</b>	<b>25</b>	<b>37,8</b>	43,3	24,5	40,2
<b>Espainia</b>	<b>28</b>	<b>43</b>	<b>29</b>	<b>36,8</b>	50,6	26,1	19,9
<b>India</b>	<b>52</b>	<b>61</b>	<b>40</b>	<b>24,3</b>	38,0	17,2	4,1
<b>Hegoafrika</b>	<b>64</b>	<b>99</b>	<b>61</b>	<b>19,5</b>	34,3	5,5	4,1
<b>Kolonbia</b>	<b>75</b>	<b>81</b>	<b>63</b>	<b>17,9</b>	26,4	10,2	8,6
<b>Kenya</b>	<b>79</b>	<b>44*</b>	<b>88</b>	<b>15,6</b>	17,7	25,8	1,3
<b>Uganda</b>	<b>123</b>	<b>124</b>	<b>119</b>	<b>2,2</b>	3,9	0,9	0,3

Iturria: geuk egina, 2022ko *berrikuntza-indize globalari* buruzko datuetan oinarrituta



Taula eta *berrikuntza-indize globalari* buruzko datuak behatuta, honako hau azpimarratu daiteke:

- › Kenyak postuak irabazi ditu, beharbada ikus-entzunezko produkzioei buruzko informazio-faltagatik eta arte grafikoetan duen lidergo-postuagatik, manufakturaren guztizkoaren zati gisa (munduko 3. postuan dago).
- › Estonia ere antzeko egoera batean dago; izan ere, entretenimenduaren eta komunikabideen eremuko informazio-falta eta 15 urtetik 69 urtera arteko biztanleen ikus-entzunezko produkzio nazionaletan duen munduko lidergo-postua (bigarrena) konbinatzen dira.
- › Aitzitik, Hegoafrikak maila bat jaitsi du eta ranking orokorrean 61. postuan eta *sormen-emaitzak* alderdian 64. postuan egotetik KSSIekin lotutako berariazko rankingean 99. postuan egotera pasatu da. Kasu horretan da txarrena horri dagokion konparazioa. Gainera, adierazle batean (arte grafikoak manufakturaren guztizkoari dagokionez) ez dago informaziorik eta postu baxuagoa duten bi adierazlek (kulturaren eta sormenaren arloko

zerbitzuen esportazioak eta ikus-entzunezko produkzio nazionala) herrestatze-efektua daukate.

- › Ugandan, nabarmentzekoa da informazio ugari falta dela eta 5 adierazleetatik 3tan ez dagoela daturik.
- › Herrialde-multzo handi batek postu txarragoa lortu du ranking orokorrarekin erkatuta eta puntakoak izatetik aurreratutak izatera pasatu dira (Alemania, Australia eta Finlandia) edo aurreratuen postuari eutsi diote nahiz eta toki batzuk jaitsi (Espainia, Portugal eta Italia).
- › Azkenik, AEB eta Britainia Handia ia leku berberean geratu dira, puntako gisa.

*Sormen-emaitzak* alderdiko puntuazioa kontuan hartuta, **kulturaren eta sormenaren testuinguruari dagokion sailkapen hau proposatzen da (2. diagrama)**, rankingean izan diren hiru jauzi nagusiei jarraituz (Finlandiaren 18. postutik Estoniaren 24. postura eta Espainiaren 28. postutik Indiaren 52. postutik):



Iturria: geuk egina, 2022ko *berrikuntza-indize globalari* buruzko datuetan oinarrituta

Sailkapen hori garrantzitsua da errealitatearen erretratu hobea lortzeko. Gainera, datu objektiboetan oinarritutako informazio sekundarioaren oinarria ematen du eta, beraz, eskualdeko

koordinatzaileek lortutako informazio primarioa osatu eta interpretatzeko balio du. Ildo horretan, sailkapena sintesiaren atalean erabiliko da testuinguru orokorren eta KSSIen ekosistemen arteko harremanaren ulermena sakonago arakatzeko (5.1.2 atala). Zehatz-mehatz, azalduko den moduan, gure emaitzak (eskualdeko koordinatzaileei egindako inkestan ateratakoak) kanpoko datu objektibo horiekin haztatuko dira, KSSI bakoitzaren testuinguruaren ikuspegi orokor osoago bat eskuratzeko.

### 3.3 Eskualdeko testuinguruaren sintesia

Lehen atal hau laburtzeko, funtsezkoa da bi alderdi nabarmentzea:

- › Batetik, herrialdeen berrikuntza-profilen eta haien profil sozioekonomikoaren arteko harremana.
- › Bestetik, *berrikuntza-indize globalak* KSSiei buruz ematen duen berriazko informazio sekundarioa.

Lehenik eta behin, 5. taulan kasu bakoitza ikus daiteke, berrikuntza orokorrean izandako emaitzekin eta lurraldeari, biztanleriari eta ekonomiari dagozkien testuinguru-aldagaiekin. Kasuak *berrikuntza-indize globalean* duten postu orokorraren arabera ordenatuta eta beren berrikuntza-kategoria orokorraren arabera ordenatuta daude, 2. taulako emaitzek adierazten duten bezala.

Argi dago berdea taularen goiko aldean dela nagusi, kolore horiak eta berde-tonu leunagoak erdialdean daudela eta behealdean laranja eta gorria gailentzen direla.

Horrek agerian jartzen du ezaugarri orokorrak zehazteko aldagaien (eskualdearen profil sozioekonomikoaren) eta berrikuntzarekin lotutako emaitza globalen arteko harremana.

**5 taula. Herrialde-mailako kasu bakoitzaren lurraldeari, biztanleriari eta ekonomiari buruzko datuen ezaugarri konparatuak (kolore-eskala), berrikuntza-indize globalaren ranking orokorrean duten postuaren arabera ordenatuta.**

Herrialdea (ranking globalean duten postuaren arabera ordenatua)	Hiri- biztanleriaren %	BPGd-a milioitan (\$US) 2022an	Per capita BPGd-a (\$US) 2022an	Langabeziaren % (LANEren ereduaren zenbatespena)	Giniren indizea	Zerbitzuetako enpleguaren %	Kanpo- zorraren saldoa (BPGd-aren %)	Eskolatzeko-urteen batezbestekoa	CO2 isuriak (per capita tona metrikotan)	Airearen PM2.5 kutsadura, urteko batez besteko esposizioa	Bizi- itxaropena
<b>AEB</b>	82,5	25.462.700	76.399	8,1	39,7	78,73	&	16,3	14,67	7,4	77,2
<b>Erresuma Batua</b>	83,7	3.656.809	54.603	4,5	32,6	80,83	&	17,3	5,22	10,47	80,7
<b>Alemania</b>	77,4	5.309.606	63.150	3,8	31,7	71,61	&	17	7,91	12,02	80,6
<b>Finlandia</b>	85,4	328.004	59.027	7,8	27,1	74,58	&	19,1	7,37	5,86	82
<b>Danimarka</b>	88	436.857	74.006	5,6	27,5	79,23	&	18,7	5,1	10,02	81,4
<b>Estonia</b>	69,1	62.797	46.697	6,8	30,7	68,12	&	15,9	7,67	6,73	77,1
<b>Australia</b>	86,1	1.626.940	62.625	6,5	34,3	78,37	&	16,5	15,23	8,55	84,5
<b>Italia</b>	70,7	3.052.609	51.865	9,2	35,2	70,23	&	16,2	5,31	16,75	82,9
<b>Espainia</b>	80,6	2.181.968	45.825	15,5	34,9	75,54	&	17,9	5,09	9,69	83
<b>Portugal</b>	65,8	430.227	41.452	6,8	34,7	69,83	&	16,9	4,33	8,16	81
<b>India</b>	65,8	11.874.583	8.379	8	35,7	32,27	21,4	11,9	1,79	90,87	67,2
<b>Hegoafrika</b>	66,9	952.603	15.905	29,2	63	72,41	51,77	13,6	7,5	25,1	62,3
<b>Kolonbia</b>	81,1	1.052.389	20.287	15	51,5	64,11	58,3	14,4	1,6	16,52	72,8

<b>Kenya</b>	27,5	311.410	5.764	5,7	40,8	39,43	38,45	10,7	0,42	28,57	61,4
<b>Uganda</b>	24,4	127.282	2.694	2,8	42,7	21,36	46,53	10,1	0,13	50,49	62,7

Iturria: geuk egina, 2022ko *berrikuntza-indize globalari* buruzko datuetan oinarrituta

Bigarrenik, kontuan izan behar da *Global Innovation Index* indizeak *sormen-emaitzak* alderdiari buruz ematen duen informazioa oso baliotsua dela. Horrek eskualde guztientzako konparazio-oinarri bat ezartzen du, gure datu primarioak (inkesta) osa ditzakeen informazio objektiboarekin.

Ildo horretan, garrantzitsua da kasuek **sormen-emaitzak alderdiari dagokion berariazko rankingean** duten postuan oinarritutako ezaugarriak kontuan hartzea. Izan ere, horri esker kulturaren eta sormenaren arloko emaitzen arabera sailka daitezke:

- **Liderrak** (sormen-emaitza indartsuenak): Erresuma Batua, Alemania, AEB, Danimarka, Italia eta Finlandia.
- **Aurreratuak** (sormen-emaitza sendoak): Estonia, Portugal, Australia eta Espainia.
- **Moderatuak edo goraka ari direnak** (sormen-emaitza ez hain indartsuak): India, Hegoafrika, Kolonbia, Kenya eta Uganda.

Emaitza eta sailkapen horiek, testuinguru orokorren eraginari buruzko hipotesia onartuz gero, garrantzitsuak dira kasu bakoitzaren errealitatea hobeto ulertzeko eta garrantzitsuak izan daitezke gero KSSIetako berrikuntza-ekosistemei buruzko datu zehatzak irakurtzeko.







## 4. KSSIak eta berrikuntza

4. atalean, eskualdeko koordinatzaileei beren lurraldeei buruz eta erakundeei beren berrikuntza-kasuei buruz egindako galde-sorten emaitzak aurkezten dira. KSSIen eta berrikuntzaren oraingo egoeraren irudi orokor bat eskaintzen da, gaia aztertzeke garrantzitsuak diren alderdiei helduz. Horretarako, eskualdeko kontuak aztertzen dira, eskualdeko koordinatzaileen informazioarekin (politikak, tresnak, eragileak...), baita banakako kontuak ere, erakundeetatik datorren informazioarekin (berrikuntza-modu zehatzak).

- Lehen atala eta bigarrena («**KSSIen monitorizazioa eta berrikuntza**» eta «**Eskualdeko ikuspegi estrategikoak**») eskualdeko koordinatzaileei egindako galde-sorten emaitzetan bakarrik oinarrituta garatu dira. Beraz, informazioa eskualdeen ezaugarriei dagokie zuzenean.
- Hirugarren atalean («**Berrikuntza-ingurunea**»), eskualdeko koordinatzaileei egindako galde-sortaren emaitzak eta erakundeei egindakoaren emaitzak tartekatzen dira. Horrela, eskualdeko koordinatzaileen unibertsoaren eta erakundeen unibertsoaren informazioan oinarrituta aztertzen dira berrikuntza-inguruneak.
- Laugarren eta bosgarren azpiatalak («**Berrikuntzaren ezaugarriak**» eta «**Emaitzen neurketa, inpaktuak eta berrikuntzaren balioa**») erakundeen informazioarekin bakarrik eraiki dira eta berrikuntza kasu-mailan aztertzea ahalbidetzen dute.

Informazio hori guztia erabiliz, amaierako gogoetarako apartatuan, ekosistemen testuinguru zehatzak KSSIei berrikuntza-kasuetan eragiten dielako hipotesian sakonduko da.


## 4.1 KSSIen monitorizazioa eta berrikuntza

Kasu gehienetan, adierazi dute haien testuinguruetan (eskualdeen % 87,5etan) badaudela behatoki kulturalak, baina ehuneko pixka bat jaisten da KSSIen eta berrikuntzaren jarraipena egiteko tresna zehatzagoak aztertu ahala: eskualdeen % 81,25etan, badaude KSSiei buruzko estatistikak, eta eskualde guztien % 75etan, badaude berrikuntzari buruzko estatistikak. Beraz, jarraipena hedatu samarra dago. Hala ere, eskualdeko koordinatzaileek emandako informazioak desberdintasunak agerrarazten ditu maiztasunei, inplikaturako eragileei, orientazioei eta abarri buruz.

2a irudia. Behatoki kulturalak (%)

2b irudia. KSSiei buruzko estatistikak (%)

2c irudia. Berrikuntzari buruzko estatistikak (%)





Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (eskualdeko koordinatzaileei egindako *Contrast II* inkesta)

## 4.2 Eskualdeko ikuspegi estrategikoak

3. irudia. Garapen ekonomikoan KSSIak barne hartzen dituen berariazko planik badagoen (%)

4. irudia. KSSIen garapenean aktibo dauden eragile-motak, talde ekonomikoaren arabera (%)



Planik ez daukaten edo sektoreaz kanpoko planak dauzkaten eskualdeak

- > Hegoafrika - Lurmutur Mendebaldea
- > India - Karnataka
- > Alemania - Baden-Württemberg
- > Australia - Hego Australia

Kultura-plan orokorrak dauzkaten eskualdeak

- > Italia - Puglia
- > Kenya
- > Espainia - Valentziako Erkidegoa
- > AEB - Washington
- > Estonia
- > Portugal - Região do Norte

KSSIetarako berariazko planak dauzkaten eskualdeak

- > Finlandia
- > Danimarka
- > Uganda
- > AEB - Kalifornia
- > Erresuma Batua - Cardiff (CCR)
- > Kolonbia - Antioquia

Eragile jeneralista gehien dauzkaten eskualdeak

- > Espainia - Valentziako Erkidegoa
- > India - Karnataka

Berdin

- > Finlandia
- > Danimarka
- > Uganda
- > Italia - Puglia
- > Kenya
- > Hegoafrika - Lurmutur Mendebaldea

Eragile sektorial aktiboena dauzkaten eskualdeak

- > AEB - Kalifornia
- > Erresuma Batua - Cardiff (CCR)
- > Kolonbia - Antioquia
- > AEB - Washington
- > Estonia
- > Portugal - Região do Norte
- > Alemania - Baden-Württemberg
- > Australia - Hego Australia

Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (eskualdeko koordinatzaileei egindako Contrast II inkesta)

Ikuspegi estrategikoari dagokionez, 3. irudiaren arabera (ezkerraldea), nabarmentzekoa da oro har KSSIetarako berariazko plangintza bat dagoela edo begirada zabalago bat duen plangintza kultural bat dagoela. Dena den, aztertutako kasuen % 25etan ez dago inolako planik.

Aktiboki inplikaturako eragile-motei dagokienez (4. irudia), azpimarratzekoa da gehienetan eragile sektorialak daudela nagusiki inplikaturak (% 50). Nolanahi ere, oso ezohikoa da eragile nagusiak jeneralistak izatea<sup>2</sup> (% 12,5) eta, askotan, eragile sektorialak eta jeneralistak elkarrekin inplikaturak dira.

Diru bidezko babesean inplikaturako administrazio-mailak<sup>3</sup> (hurrengo orriko 5a irudia, ezkerraldean) eta diruz bestelako babesean ari direnak<sup>4</sup> (5b irudia, eskuinaldean) konparaturak, ikusten da estatu-mailak eta goragokoak pixka bat nagusitzen direla diru bidezko babesean. Diruz bestelako babesari dagokionez (5b irudia, eskuinaldean), tokiko eta eskualdeko mailak gailentzen dira.


---

<sup>2</sup> «Eragile jeneralistak» etiketak «kultura ez beste eremuetako ministerioak, arloak edo sailak» eta «Izaera orokorreko garapen-agentziak edo antzekoak (zenbait sektore)» hartzen ditu barne. Aitzitik, «agente sektorialak» etiketak «Kulturako ministerioak, arloak edo sailak» eta «KSSIetan espezializatutako garapen-agentziak edo antzekoak» hartzen ditu barne.


<sup>3</sup> «Beheko administrazio-mailak» etiketak tokiko eta eskualdeko mailak hartzen ditu barne eta «goiko administrazio-mailak» etiketak, berriz, estatuko eta nazioarteko mailak.

<sup>4</sup> Diru bidezko babesak «laguntzak, dirulaguntzak, kreditu-lerroak, zerga-pizgarriak...» hartzen ditu barne eta diruz bestelako babesak, aldiz, «azpiegitura, aholkularitza, prestakuntza...».

**5a irudia. Diru bidezko babesean inplikaturako administrazio-mailak (%)**



**5b irudia. Diruz bestelako babesean inplikaturako administrazio-mailak (%)**



Goiko administrazio-mailak dira aktiboenak diru bidezko babesak eskaintzen

- > Danimarka
- > Uganda
- > Kenya
- > AEB - Kalifornia
- > Erresuma Batua - Cardiff (CCR)
- > AEB - Washington
- > Estonia
- > Portugal - Região do Norte

Behekoak eta goikoak berdin

- > Hegoafrika - Lurmutur Mendebaldea

Beheko administrazio-mailak dira aktiboenak diru bidezko babesak eskaintzen

- > Finlandia
- > Italia - Puglia
- > Espainia - Valentziako Erkidegoa
- > India - Karnataka
- > Kolonbia - Antioquia
- > Alemania - Baden-Württemberg

Goiko administrazio-mailak dira aktiboenak diruz bestelako babesak eskaintzen

- > Kenya
- > Estonia
- > Portugal - Região do Norte
- > Australia - Hego Australia
- > Espainia - Valentziako Erkidegoa

Behekoak eta goikoak berdin

- > Erresuma Batua - Cardiff (CCR)
- > AEB - Washington

Beheko administrazio-mailak dira aktiboenak diruz bestelako babesak eskaintzen

- > Hegoafrika - Lurmutur Mendebaldea
- > Danimarka
- > Uganda
- > AEB - Kalifornia
- > Finlandia
- > Italia - Puglia
- > India - Karnataka

> Australia - Hego  
Australia

> Kolonbia -  
Antioquia  
> Alemania - Baden-  
Württemberg

Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (eskualdeko koordinatzaileei egindako *Contrast II* inkesta)

## 4.3 Berrikuntza-ingurunea

### 4.3.1 KSSIen eta berrikuntzaren egoeraren balorazioa

Eskualde bakoitzeko informatzaileek KSIekin lotutako beren lurralde-testuinguruak puntuatu dituzte sarrera gisa. 8 itemi buruz daukaten iritzia adierazi dute. Itemak hobeto ulertzeko, honela sailka daitezke:

→ **Programa eta babes publikoak (5 item):**

- > Kulturaren eta sormenaren sektoreetako berrikuntzari emandako babesa nabarmena da eskualdean.
- > Eskualdeko administrazioak garrantzi estrategikoa ematen dio berrikuntzari.
- > Kulturaren eta sormenaren sektoreek beste sektore batzuekin baterako proiektuetan parte hartzea sustatzen da.
- > Eskualdeko kulturaren eta sormenaren sektoreen nazioartekotzea sustatzen da.
- > Eskualdeko administrazioak garrantzi estrategikoa ematen die kulturaren eta sormenaren sektoreei.


→ **KSSIen indarrak (2 item):**



- > Eskualdeko kulturaren eta sormenaren sektoreek egitura-maila eta antolaketa-maila altuak dauzkate.
- > Kulturaren eta sormenaren sektoreei buruzko prestakuntza hezkuntza-sisteman barne hartuta dago.
- **KSSIen ekarpenak (item 1):**
- > Kulturaren eta sormenaren sektoreek ekarpen garrantzitsua egiten diote eskualdeko lehiakortasunari.

Item bakoitzari begiratuta, nabarmentzekoa da (6. irudia) KSSIek eskualdeetan egiten duten ekarpena oso positiboa dela batez beste (7tik 5,63). Informatzaileek adierazi dute administrazioak bai berrikuntzari bai KSSIei ematen diela garrantzi estrategikoa. Asmo horiek gorabehera, sektorearen ezaugarriak zehazteko itemek jasotako puntuazioak pixka bat baxuagoak dira. Leku txarrean sektorearen nazioartekotzearekin, egituratzearekin eta beste sektore batzuekiko elkarlanen sustapenarekin lotutako gaiak daude.

**6. irudia. Hautatutako eskualdeen indar eta erronka orokorrak. Koordinatzaileek zenbait alderdiri buruz egindako balorazioen batezbestekoa. Eskala 1etik (puntuazio ahula) 7ra (indartsua) doa.**




Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (eskualdeko koordinatzaileei egindako *Contrast* II inkesta)

Eskualdeka begiratuta (7. irudia), bi taldetan antolatutako itemak eskualdeko lehiakortasunari egindako ekarpenari kontrajarriz gero, ikusten da oso askotariko egoerak daudela. Kasu batzuetan, KSSiek eskualdeko lehiakortasunari egiten dioten ekarpenari oso balorazio positiboa ematen zaio, baina haien ezaugarriak edo jasotzen duten babes publikoa ez dira oso alderdi baikorrak.

Aitzitik, beste kasu batzuetan babes handia edo ezaugarri indartsuak dituen sektore bat dago, baina eskualdeko lehiakortasunari egindako ekarpenaren balorazioa ez da hainbeste nabarmentzen. Nolanahi ere, dinamika jakin batzuk ikusten dira:

- › Indarrak bat datozen testuinguruak, zeinek sektore egituratuak eta KSSIak babesteko estrategiak eta planak dauzkaten eta eskualdeko lehiakortasunari laguntzeko gaitasunaren jakitun diren: Cardiff (Britainia Handia), Valentziako Erkidegoa (Espainia), Danimarka eta Puglia (Italia).
- › Lehiakortasunari ekarpena egiteko gaitasunari buruzko kontzientzia ezin handiagoa den testuinguruak, nahiz eta bai sektorearen egituraketa bai babes-politikak mugatuagoak izan: Washington (AEB), Kalifornia (AEB), Adelaida (Australia), Região do Norte (Portugal) eta Kenya.
- › Bai sektorearen egituraketan bai sektoreen babesean indartsuak diren baina eskualdeko lehiakortasunari ekarpena egiteko duten gaitasuna hain nabarmentzat jotzen ez den testuinguruak: Estonia eta Antioquia.
- › Lehiakortasunari eragiteko gaitasun argirik ez daukaten testuinguruak, babes mugatua baina egituraketa-maila altua daukatenak: Finlandia.
- › Lehiakortasunari ekarpena egiteko gaitasunari buruzko kontzientzia ertain-altua den baina errealitate sektorial eta babes-tresna desberdinak daukaten testuinguruak: Uganda eta Lurmutur Mendebaldea (Hegoafrika).
- › Lehiakortasunari eragiteko gaitasun txikia daukaten testuinguruak, babes mugatuak eta egituraketa-maila aldakorra daukatenak: Karnataka (India).

**7. irudia. Hautatutako eskualdeen indar eta erronka orokorrak.** Koordinatzaileek aurreko itemei buruz egindako balorazioak, «KSSIen indarrak» (2 item) eta «KSSIen plangintza, babesa edo sustapena» (5 item) taldeetan metatuta eta KSSiei buruz eskualdeko lehiakortasunari dagokionez egiten den balorazioari kontrajarrita. Eskala 1etik (puntuazio ahula) 7ra (indartsua) doa.



Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (eskualdeko koordinatzaileei egindako Contrast II inkesta)

### 4.3.2 Ezagutzaren sorketa eta transferentzia

8. irudia. Ezagutza sortzeko eta transferitzeko berariazko tresnen existentziaren sintesia (%)

KSSIetarako berariazkoak\*



<b>Inkubagailuak</b>	Hego Australia Baden-Württemberg Kalifornia Cardiff (CCR) Valentziako Erkidegoa Danimarka Estonia Finlandia Região do Norte Antioquia Kenya Lurmutur Mendebaldea Uganda
<b>Klusterrak</b>	Hego Australia Baden-Württemberg Kalifornia Cardiff (CCR) Valentziako Erkidegoa Danimarka Estonia Finlandia Região do Norte Puglia Antioquia
<b>Parke zientifiko edo teknologikoak</b>	Região do Norte


\* Xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi Testuinguruaren konparazioa

Iturria: geuk egin, inkestako datuetan oinarrituta (eskualdeko koordinatzaileei egindako Contrast II inkesta)


**Inkubagailuak** KSSIen eremu zehatzean ezagutza sortu eta transferitzeko ekimen-mota ohikoena dira. Kasu gehien-gehienetan, badaude berariazko ekimenak edo, bestela, KSSIak barne hartzen dituzten ekimen orokorrak. **Klusterrak** ere KSSIetan zehazki ardaztuta dagoen oso estrategia-mota zabaldua dira. Azkenik, **parke zientifiko edo teknologikoak** ekimen jeneralistagoak dira eta kasu batean bakarrik dira KSSIetarako berariazkoak.

Tresna horien existentzia aztertzeko beste modu bat da aztertzea inkestatutako erakundeek ezagutzen eta erabiltzen dituzten eta garrantzitsutzat jotzen dituzten (9a eta 9b irudiak). Ikuspegi horrek programa bakoitzaren garrantzia berresten du.

**9a irudia. Erakundeek tresna bakoitzari dagokionez duten ezagutza eta partaidetza (%)**




**9b irudia. Eragileek tresna bakoitzari esleitzen dioten garrantzia (eskala 1etik [garrantzirik gabe] 5era [garrantzi handiena] doa)**



Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako Contrast II inkesta)

### 4.3.3 Berrikuntzaren baldintzak eta babesa

10. irudia. Berrikuntzari babesa emateko berariazko tresnen laburpena (%)



	KSSiatarako berariazkoak*
<b>KSSiatarako programa ekonomiko orokorrak</b>	Hego Australia Baden-Württemberg Cardiff (CCR) Valentziako Erkidegoa Estonia Finlandia Puglia Antioquia Kenya Uganda
<b>KSSiatarako berrikuntza-programak</b>	Kalifornia Cardiff (CCR) Finlandia Antioquia Kenyas Lurmutur Mendebaldea Uganda
<b>Berrikuntzari buruzko aholkularitza eta prestakuntzarako programak</b>	Baden-Württemberg Kalifornia Cardiff (CCR) Valentziako Erkidegoa Finlandia Kenya
<b>Ekintzaitzari buruzko aholkularitza eta prestakuntzarako programak</b>	Baden-Württemberg Kalifornia Estonia Finlandia Kenya Lurmutur Mendebaldea
<b>Sariak eta aintzatespenak</b>	Baden-Württemberg Cardiff (CCR) Danimarka Estonia Washington


\*Xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi [Testuinguruaren konparazioa](#)  
Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako Contrast II inkesta)

Kasu guztietan, badaude **finantzaketako eta laguntza ekonomikoko programak** (dirulaguntzak, kreditu-lerroak, zerga-pizgarriak...); batzuk (gehienak) KSSIetarako dira berariaz eta beste batzuek KSSIak barne hartzen dituzte. Gainera, kasu askotan (gehienak ez diren arren), badaude sektore horietako berrikuntza xede duten berariazko programa ekonomikoak.

**Laguntza ez-ekonomikoak**, hala nola aholkularitza, prestakuntza eta sariak, gutxi gorabehera kasuen heren batean bakarrik dira berariaz KSSIetarako. Dena den, askok, batez ere berrikuntzarako aholkularitzak eta prestakuntzak, barne hartzen dituzte KSSIak.

**11. irudia. Eragile bakoitzak babes ekonomikoan eta ez-ekonomikoan duen garrantzia. Eskala 1etik (garrantzirik gabe) 5era (garrantzirik handiena) doa.**






Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako Contrast II inkesta)

Erakundeentzat, desberdintasun gutxi daude eragile bakoitzak diru bidezko babesari eta diruz bestelako babesari dagokienez duten garrantzian (11. irudia). Gainera, ekuazioan norberaren baliabideek daukaten garrantzia sartzen da, alderdi hori ezinbestekoa baita berrikuntzan. Nolanahi ere, eta arreta berriro ere programetan jarrita (oraingoan, aholkularitza eta prestakuntzarako programetan eta I+G programetan), ikus daiteke garrantzitsu samar deritzaiela (12a irudia) eta erdiak baino gehiago, ezagutu ez ezik, programa horietako baten onuradun izan direla (12b irudia).

**12a irudia. Erakundeek tresna bakoitzari dagokionez duten ezagutza eta partaidetza (%)**

**12b irudia. Eragileek tresna bakoitzari esleitzen dioten garrantzia (eskala 1etik**


[garrantzirik gabe] 5era [garrantzi handiena] doa)



Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako *Contrast* II inkesta)

## Alderdi interesdunak

13. irudia. Alderdi interesdun hauekin izandako harremanaren aldizkakotasuna (eskala 1etik [«inoiz ez»] 5era [«maiz»] doa)



Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako Contrast II inkesta)

Eragile askok KSSIetako berrikuntzarekin lotutako inguruneetan parte hartzen dute, baina denek ez dihardute denekin maiztasun berarekin elkarlanean. Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da eragileek izaera desberdinak dauzkatela eta izaerak harremanaren forma eta, beraz, aldizkakotasuna baldintzatzen dituela. Era berean, sektoreko erakundeek beren beharrak dauzkatenez, erakunde batzuekin edo besteekin harremanetan egoteko joera handiagoa dute. Haientzat, adibidez, banku-fundazioak, enpresa-fundazioak eta parke teknologiko edo zientifikoak *stakeholder* edo alderdi interesdun ezohikoak dira. Gobernuak ere, zeinekin harreman administratiboagoa eta formalizatuagoa daukatela uler baitaiteke, badira alderdi interesdun ezohikoak aldizkako harremanari dagokionez.

Aitzitik, harreman ohikoena eragile pribatuekin izaten dute, hala nola erabiltzaileak edo bezeroak diren erakunde eta enprekin, baita haien jarduera-eremu zehatzarekin lotutako beste batzuekin ere. Ulertu behar da horiek KSSIetarako funtsezko eragileak direla.

Hala, nabarmentzekoa da alderdi interesdunak publikoak zein pribatuak izan daitezkeela eta kategoria horien barruan beste mota batzuk zehaztu daitezkeela. Pribatuak (zehatz-mehatz, lotutako edo sektore bereko beste erakunde batzuk) alderdi interesdun garrantzitsuenak dira. Publikoen artean, tokiko, autonomia-erkidegoko, estatuko eta nazioarteko mailako administrazio eta erakunde publikoak hain garrantzitsuak ez diren arren, unibertsitateek eta ikerketa-zentroek badute garrantzia. Azken eragile horiekin ondoriozta daiteke interes zehatzekin lotuago dauden harremanak izan daitezkeela, elkarlanean aritzeko eta berritzeko berariazko ezagutza garrantzitsua edukitzeagatik interesgarriak direlako.

## 4.4 Berrikuntzaren ezaugarriak

#### **4.4.1 Berrikuntza-motak**

Berrikuntza aztertzean, bi mota orokor handi bereizi dira: prozesuena edo metodologikoa<sup>5</sup> eta produktuena (zerbitzuak edo ondasunak, lan artistikoak barne)<sup>6</sup>. Prozesuen berrikuntzak edo metodologikoak erakundearen barne-eraldaketarekin du zerikusia eta produktuen berrikuntza, aldiz, zirkulazioan jarritako ondasunen eta zerbitzuen eraldaketarekin lotuta dago.

Emaitzek erakusten dute bi alderdietako berrikuntza-mailak oso antzekoak direla eta aldaketa nabarmenak egon direla kasuen % 65etan erreferentziako aldian. Kasu gutxi batzuek bakarrik adierazi dute azken bi urteetan ez dutela aldaketa handirik egin beren prozesu edo produktuetan. Gutxi gorabehera % 30k diote bietan egin dituztela aldaketak, baina txikiak. Ildo horretan, kontuan izan behar da aldaketa handiak berrikuntzatzat jo ohi direla.

Bi kasuetan, gutxi gorabehera % 30ek diote aldaketak egin dituztela, baina txikiak. Ildo horretan, kontuan hartu behar da aldaketa handi horiek berrikuntza gisa zenbatzen direla.



**14a irudia. Prozesuen berrikuntza edo berrikuntza metodologikoa (%)**

**14b irudia. Produktuen berrikuntza (zerbitzuak, ondasunak edo obra artistikoak) (%)**

---

<sup>5</sup> Bai erakundearentzako berarentzako berrikuntzak edo hobekuntzak bai sektorearentzako berrikuntzak edo hobekuntzak hartzen ditu barne, jatorriz erakundeak berak garatu zein hasieran beste batzuek garatu. Adibidez: aldaketak sortzeko eta ekoizteko moduetan eta tresnetan, saltzeko eta merkaturatzeko kanaletan, kontabilitatearen eta giza baliabideen administrazioan eta kudeaketan...

<sup>6</sup> Bai erakundearentzako berarentzako berrikuntzak edo hobekuntzak bai sektorearentzako berrikuntzak edo hobekuntzak hartzen ditu barne, jatorriz erakundeak berak garatu zein hasieran beste batzuek garatu. Adibidez: materialen hobekuntza, softwarearen gehikuntza edo hobekuntza, ingurumenaren arloko hobekuntzak, zerbitzu digitalak...



Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako *Contrast* II inkesta)

**6 taula. Prozesuen berrikuntzaren edo berrikuntza metodologikoaren eta produktuen berrikuntzaren arteko begirada konbinatua (%)**

		Prozesuen berrikuntza edo berrikuntza metodologikoa			Guztira
		Ez	Bai, aldaketa txikiak	Bai, aldaketa handiak	
Produktuen berrikuntza (zerbitzuak, ondasunak edo obra artistikoak)	Ez	% 1,14	% 3,41	% 0,00	% 4,55
	Bai, aldaketa txikiak	% 2,27	% 17,05	% 12,50	% 31,82
	Bai, aldaketa handiak	% 1,14	% 7,95	% 54,55	% 63,64
Guztira		% 4,55	% 28,41	% 67,05	% 100,00

Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako *Contrast* II inkesta)

Interesgarria da 6. taulan ikustea berrikuntza konbinatu bat, dinamika indartu bat dagoela: kasu gehienetan, badaude aldaketa handiak bai prozesuetan bai produktuetan (% 54,55). Era berean, alderdi batean aldaketa txikiak egin dituzten kasu gehienek bestean ere egin dituzte aldaketak, modu berean (aldaketa txikiak bi alderdietan). Baliteke horrek nolabaiteko inertzia edo dinamika agerraraztea berrikuntzan: batzuk aldaketa handiak egiteko dinamika orokor batean sartuta daude (bai produktuei bai prozesuei dagokienez) eta beste batzuk, aldiz, aldaketa txikiak egiteko dinamika batean.

Egindako aldaketa-motan sakontzeko, kasuek adierazi dute zer neurritan datozen bat zenbait eremu edo ezaugarriekin.


Prozesuen berrikuntza edo berrikuntza metodologikoari dagokionez, sektoreko aldaketa ohikoenen xedea da «ekoizteko, ondasunak garatzeko edo zerbitzuak emateko metodoak» eta «informazioa prozesatzeko edo komunikatzeko metodoak» aldatzea. Zona horietan agertzen da «guztiz edo ia guztiz bat datozenen» ehunekorik altuena, alegia, % 47,73 eta % 45,45, hurrenez hurren. Gainera, kasuen % 40,91k eta % 37,5ek, hurrenez hurren, hein batean arlo horiekin lotutako aldaketen berri eman dute.

Aitzitik, garrantzi gutxiko bi arlo, lotutako aldaketa gutxiago dauzkatenak, taldekatu daitezke: «kontabilitate-eragiketak edo beste administrazio-eragiketa batzuk», % 36,36rekin «ez datoz bat» kategorian, eta «logistika edo emateko zein banatzeko metodo berriak edo nabarmen hobetuak», % 48,86rekin.

Erdiko blokean, aldaketak dauzkaten baina aipatutako arloekin hein batean bakarrik bat datozen hiru arlo daude: «erakundearen prozeduretarako edo kanpo-harremanetarako praktika

komertzialak», «antolatzen, erabakiak hartzeko edo giza baliabideak kudeatzeko metodoak» eta «sustatzeko, paketatzen, prezioak finkatzeko, produktuak posizionatzeko edo saldu osteko zerbitzuak emateko metodoak».

**15. irudia. Prozesuen berrikuntzaren edo berrikuntza metodologikoaren eremuak (%)**




Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako Contrast II inkesta)

Produktuen berrikuntzari dagokionez (ondasunak, zerbitzuak zein obra artistikoak izan), kalitatea eta sinesgarritasuna dira berrikuntza handienak sortzeko erabiltzen diren bi irizpideak. Gutxi gorabehera kasuen % 55etan, irizpide horiekin zuzenean zerikusia duten aldaketak daude. Bestalde, «egokitasuna» terminoa erabiltzen da xede jakin batera egokitzeko gaitasuna adierazteko. Berritzean gutxien izaten den irizpidea da eta, oro har, aldaketak hein



batean bakarrik etortzen dira bat irizpide horrekin. Tarteko bloke batean «erabiltzeko erraztasuna», «espezifikazio edo prozedura teknikoak», «irisgarritasuna» eta «efizientzia erabileran» daude.

**16. irudia. Produktuen berrikuntzaren eremuak (ondasunak, zerbitzuak edo obra artistikoak) (%)**



Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako *Contrast* II inkesta)



Laburbilduz, KSSIetako prozesuen berrikuntzek, nagusiki, «ekoizteko, ondasunak garatzeko edo zerbitzuak emateko metodoekin» eta «informazioa prozesatzeko edo komunikatzeko metodoekin» dute zerikusia eta produktuen berrikuntzek, aldiz, «kalitatearekin» eta «sinesgarritasunarekin».

#### 4.4.2 Prozedurak eta mekanismoak

11. irudiak (berrikuntzaren baldintzei eta babesari buruz) adierazten duen moduan, nabarmentzekoa da, lehenik, erakundeek adierazi dutela berrikuntzak beraien baliabide edo bitartekoei esker direla posible (17. irudia). % 45,45ek adierazi dute beraien bitartekoak nahiko garrantzitsuak direla eta % 26,14k diote guztiz garrantzitsuak direla: osorik hartua, horrek esan nahi du hamar erakundetik zazpik uste dutela berrikuntzak guztiz edo ia guztiz beraien baliabide eta bitartekoei esker gauzatzen direla. Ildo horretan, nabarmentzekoa da oro har berariazko I+G baliabideak (bai giza baliabideak bai baliabide ekonomikoak) erabiltzen dira berrikuntzak sortzeko: % 45,45ek adierazi dute noizean behin erabiltzen dituztela eta % 35,23k, aldiz, maiz erabiltzen dituztela.

**17. irudia. Norberaren bitartekoen edo baliabideen bidez egindako berrikuntza-maila (%)**  
*Zein puntutaraino egin ditu berrikuntzak zure erakundeak bere bitarteko edo baliabideekin bakarrik?*

**18. irudia. Berariazko I+D giza baliabideen edo baliabide ekonomikoen erabilera (%)**



Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako *Contrast II* inkesta)


Norberaren baliabideak eta bitartekoak garrantzitsuak diren arren, berrikuntza irekia edo lankidetzazkoa ere bada nahiko garrantzitsua. Ildo horretan, ondoriozta daiteke ez direla kontu baztertzaileak; aitzitik, konbinazioa ohikoa da eta potentziala dauka.

Erakundeen % 39,77tan diote berrikuntzak egiteko kanpo-babesa «nahiko» garrantzitsua izan dela eta % 19,32k, aldiz, «guztiz» garrantzitsua izan dela. Horri gehitu behar zaio kasuen % 59,09tan kanpo-babesa oinarritzotzat jotzen dela eta, berriz, % 40,91tan ez hainbeste. Horri dagokionez, zehaztu behar da «batere ez» eta «ia batere ez» kategoriak batuta % 7,96ra baino ez direla heltzen. Horrek kanpo-lankidetzaz funtsezkoa delako ideia berresten du.


Berrero ere, elkarlanean aritzeko *partner* edo bazkideei begiratuta, agerian geratzen da erabiltzaileak zein bezeroak diren erakundeak eta sektorekoak bertakoak garrantzitsuak direla,

baita unibertsitateak eta ikerketa-zentroak ere, baina aholkulariak ere bai: kasuen % 60 eta % 70 bitartean, mota horretako eragileekin elkarlanean aritu direla adierazi dute. Irabazi-asmorik gabeko erakundeek ere erantzunen % 50 baino gehiago metatzen dituzte. Ateratzen den irakurketa, oro har, zenbait *alderdi interesdunekin* izandako harremanaren maiztasunari buruzko galdera generikoaren ondoriozko irakurketaren antzekoa da (12. irudia).

**19. irudia.**  
**Berrikuntza irekia edo lankidetzazkoa (%)**  
 Zer neurritan berritu du zure erakundeak kanpo-babesarekin (lankidetzaz, kanpoko ezagutza, aholkularitza, transakzioak...)?



**20. irudia. Partner edo bazkideak (%)**  
 Eragile hauetako zeinekin aritu zara elkarlanean 2020-2022ko aldian zure berrikuntza-jarduerak garatzeko?  
*Aukera anitzeko galdera*




Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako Contrast II inkesta)

21. irudiaren arabera, berrikuntzak sortzen dituen beharrezko konexio horien ideia ere berresten da. Izan ere, erakundeen % 12,5ek bakarrik adierazi dute beren berrikuntzak inoiz edo ia inoiz ez zaizkiela zuzentzen norberarena ez den sektore bateko erakundeei. % 57,95ek adierazi dute berrikuntzak noizean behin zuzentzen zaizkiela beste sektore batzuei eta % 29,55ek, aldiz, beti beste sektore batzuei zuzentzen zaizkiola diote. Horrela, sektore arteko berrikuntzak maila edo hedadura ertaina eta ertain-altua dauka.


### 21. irudia. Sektoreen arteko berrikuntza (%)

Erreferentziako aldian, zure erakundeak sortutako berrikuntzak zurea ez den sektore bateko enpresei edo erakundeei zuzenean zuzenduta egon dira?



### 22. irudia. Oinarri teknologikoko berrikuntza (%)

Zer neurritan egin ditu berrikuntzak zure erakundeak teknologiak aplikatuz, berrituz, konbinatuz edo garatuz?




Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako Contrast II inkesta)

Azkenik, ikusi da teknologiak berrikuntzetan duen garrantzia hedatu samarra dagoela, baina ez oso nabarmenki: berrikuntzen % 23,86k eta % 27,27k bakarrik daukate zerikusia teknologiak aplikatu, berritu, konbinatu edo garatzearekin, «nahiko» eta «guztiz», hurrenez hurren (guztira, % 51,13). Kasuen % 15,91tan, berrikuntzak ez dira batere edo ia batere teknologiaren bidez egiten, eta tarteko talde batek (% 32,95ek) esan du teknologia batzuetan bakarrik erabiltzen dutela.

Berrikuntzaren berri ematen duten prozedura zehatzei begiratuta, kasuen % 69,32tan adierazi da erakundeak teknologia berria erosi duela erakundearentzat eta % 60,23tan, aldiz, jada erabiltzen zen teknologia eskuratu edo hobetu dutela. Erantzun gehien lortu dituzten bi itemak dira.

Ondoren, bereizgarri gisa marka komertzialak erregistratzea eta egile-eskubideak erreklamatzeko datoz, % 31,82rekin eta % 27,27rekin hurrenez hurren. Azkenik, eragin txikiagoarekin, etiketak eskuratzea, sekretu komertzialak erabiltzea, patenteak eskuratzea eta diseinu industrialak erregistratzea datoz.

### 23. irudia. Berrikuntzarekin lotutako prozedura zehatzak (%)



Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako *Contrast* II inkesta)

Osorik hartuta, dena den, gutxien hedatutako aukerak batuta, eragileen % 57,95ek erabili dute gutxienez bat (funtsean, espero izatekoa denez, *trademarkak* edo *copyrightak*). Hemen ere, egoera oso heterogeneoa da (6. taula): % 30,68k gutxienez prozeduretako bat erabiltzen dute; % 17,05ek, bi prozedura; eta % 10,23k, 3 edo gehiago. Ildo horretan, erakunde-segmentu txiki batek askotariko estrategia ugari erabiltzen ditu. Segmentu txiki horretan ez da joerarik atzeman: langile-bolumen oso aldakorra duten eragileak dira, zenbait sektoretakoak (eduki digitaletik eta diseinu eta modatik hezkuntza eta arte eszenikoetaraino), antzintasun desberdinekoak eta forma legal desberdinetakoak (publikoak eta pribatuak).

**7 taula. Gutxien hedatuta dauden mekanismo eta prozeduren erabilera (marka komertzialak, egile-eskubideak, *label* edo etiketak, sekretu komertzialak, patenteak, diseinu industrialak)**

	<b>Erakundeen %</b>
0 (gutxien hedatuta daudenetatik bat ere ez)	% 42,05
1	% 30,68
2	% 17,05
Gutxien hedatuta daudenetatik 3 edo gehiago	% 10,23

Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako *Contrast II* inkesta)



### 4.4.3 Berritzeko arrazoiak

24. irudia. Berritzeko arrazoiak (%)

Lehen arrazoi gisa hautatu dutenen %		Arrazoi gehigarri gisa hautatu dutenen % (erantzun anitz)
<b>31,82</b>	<b>Negozia</b> Norberaren edo hirugarrenen estrategiak eta emaitza ekonomikoak hobetzea.	<b>44,32</b>
<b>31,82</b>	<b>Kultura</b> Partaidetza areagotzea edo esperientzia kulturala hobetzea	<b>55,68</b>
<b>13,64</b>	<b>Hezkuntza</b> Hezkuntza-lanak eta ikaskuntza erraztea	<b>57,95</b>
<b>5,68</b>	<b>Ingurumena</b> Jasangarritasunari ekarpena egitea	<b>42,05</b>
<b>4,55</b>	<b>Hiria</b> Ingurunea eta komunitateak eraldatzea	<b>43,18</b>
<b>2,27</b>	<b>Osasuna</b> Osasun-zerbitzuak hobetzea	<b>13,64</b>
<b>2,27</b>	<b>Gizartea</b> Herritarren partaidetza erraztea	<b>62,50</b>
<b>7,95</b>	<b>Beste batzuk</b>	<b>7,95</b>

Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako Contrast II inkesta)


Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da arrazoi gehigarrien baturak 288 ematen duela, hau da, kasu bakoitzeko 3 arrazoi gehigarri daudela batez beste. Berritzeko bi arrazoi nagusi egon arren, alderdien aniztasuna oso garrantzitsua da. Aniztasun horretan, kulturaren eta sormenaren

sektorearen ekonomiaz kanpoko bokazioa argiago zertzen da. Negozio-bokazio argia garrantzitsua da, baina ez da gehiengoduna. Arrazoi horren pisua eta bokazio kulturalarena baliokideak dira, eta gainerako arrazoiek pisu gutxiengodunak dauzkate, baina, «arrazoi ez-ekonomiko» gisa metatuta, elkarrekin gehiengoa osatzen dute.

#### **4.4.4 Berritzeko zailtasunak**

Azkenik, berritzeko zailtasunei dagokienez, 25. irudian nabarmentzen da lehen postuetan ez dagoela diru-babes publikoa lortzeko zailtasunik, batzuetan pentsa litekeen moduan.

**25. irudia. Berritzeko zailtasunak**



Iturria: geuk egin, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako *Contrast* II inkesta)

**Bi zailtasun-faktore nagusiak** erakundearen barruko finantzaketa-falta eta kanpoko iturri pribatuen finantzaketa-falta dira. Hori *bazkideei eta alderdi interesdunei* (*partners* eta *stakeholders*) dagokienez ateratako emaitzekin lot daiteke, horietan banku-fundazioak eta enpresa-fundazioak ez zirelako eragile garrantzitsuak. Ildo horretan, beharrezkoa izan liteke eragileak publikoak ez diren finantzaketa-iturriekin lotzea.

Jarraian, azpimarratzekoa da kostu altuak, laguntza publikoak lortzeko zailtasunak (orain bai), langile kualifikatuen falta eta kanpoko kolaboratzaileen falta **inpaktu ertaineko faktoreak** direla, 25. irudiaren arabera.


**Garrantzi eskaseko faktoreak**, aldiz, kanpoko ezagutzetarako sarbide-falta, merkatuko eskariari buruzko ziurgabetasuna, erakundearen barruko beste lehentasunak eta merkatuko lehia dira.

## 4.5 Emaizten neurketa, inpaktuak eta berrikuntza-ren balioa

### 4.5.1 *Begirada orokorra*

Erakundeek, lehenik eta behin, oinarrizko hiru alderdietan (ekonomia, gizartea eta ingurumena) duten inpaktua baloratu zuten. Lehen begirada horrek hasieran kokatzeko balio du eta azpimarragarria da KSSIek batez ere gizartean dutela eragina (% 69,32k alderdi horretan inpaktu handia dutela diote), baita ekonomian ere (% 62,5). Ingurumenaren alderdian, errealitatea askoz ere bestelakoa da (% 32,95ek inpaktu handia adierazi dute; % 30,68k, inpaktu moderatua; eta % 25ek, inpaktu txikia –baina badute inpaktua–).

26. irudia. Inpaktuen autobalorazioa




Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako *Contrast* II inkesta)


#### 4.5.2 Inpaktu-alderdi estandarrek

##### Ekonomia-alderdia

**27a irudia. Berrikuntzen ondoriozko 2022. urteko gutxi gorabeherako batez besteko fakturazio-ehunekoa**



**27b irudia. Berrikuntzen ondoriozko 2022. urteko gutxi gorabeherako fakturazio-ehunekoa (tarreak)**




Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako *Contrast* II inkesta)

Alderdi ekonomikoa berariaz aztertuta, azpimarratzekoa da, lehenik eta behin, erakundeen diru-sarreraren zati handi bat sortutako berrikuntzetatik datorrela. 2022. urteko diru-sarreraren % 59,05ek 2020-2022ko aldiari nabarmen hobetutako produktu edo zerbitzuekin du zerikusia.

Bi inpaktu nabarmenek enpleguarekin dute zerikusia: lehenik, enpleguaren gorakada eta, bigarrenik, lan-baldintzen hobekuntza. Jarraian, badagoen baina hain garrantzitsua ez den inpaktu gisa, mozkinen zuzeneko igoera dago. Azkenik, berrikuntza-prozedura zehatzei buruzko grafikoaren emaitzetatik (23. irudia) susma zitekeen moduan, egile-eskubideengatiko edo patenteengatiko mozkinen igoerari dagokion inpaktua ez dago oso hedatuta.

**28. irudia. Ekonomia-alderdietako berrikuntza-maila**




Iturria: geuk egin, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako *Contrast* II inkesta)

## ***Gizarte-alderdia***

Gizarteari dagokionez, oro har, inpaktu handiak orokortuak dira. Honako hauen gaineko inpaktua gailentzen da % 60tik gora, nabarmenenetik hasita: «kulturarako eta sormenerako sarbide-maila igotzea», «nortasun kolektiboa edo komunitate baten kide izatearen sentimendua sortu edo indartzea», «askotariko praktika sozialak eta kulturalak sustatzea (dibertsitate soziala)», «genero-berdintasuna sustatzea» eta «gizarte-berdintasuna sustatzea».

29. irudia. Gizarte-alderdietako berrikuntza-maila






ko Contrast II inkesta)

## Ingurumen-alderdia

Azkenik, emaitzek ahalbidetzen dute ingurumenaren alderdiko inpaktu desberdina zehazkiago behatzea. Oro har, kasu askotan, eta batzuetan % 50 baino pixka bat gehiagotan, ez dago inolako inpakturik erabilitako itemei dagokienez.

### 30. irudia. Ingurumen-alderdietako berrikuntza-maila



Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako Contrast II inkesta)

Kontuan hartu behar da item horiekin neurtutako ingurumen-inpaktuak lehengaien erabilerarekin eta prozesu industrialekin zerikusi handia duela eta kulturaren eta sormenaren arloko sektoreak ez daudela oso lotuta alderdi horiekin, izaera sortzailea eta, zentzu jakin batean (industrialari kontrajarrita), artisautza-izaera dutelako. Gainera, orobat egia da, eskualdeko


koordinatzaileek emandako informazioaren arabera, hamasei eskualdeetatik lautan bakarrik badaudela berrikuntza jasangarritasunean oinarrituta sustatzen duten berariazko planak KSSIen testuinguruan. Interesik edo gaitasun ezagatik ere izan daiteke.

#### ***4.5.3 Balio intrintsekoa eta balio sozial partekatua***

Azkenik, bereziki balio intrintsekoaren alderdiari dagokionez, inpaktu handiko ehuneko altuenak atera dira. Ia erakunde guztiek adierazi dute haien berrikuntzek nabarmen handitzen dutela pertsonak duten ezagutza (% 88,64), % 75ek dio esperientzia bakanak sortzen direla eta % 73,86k adierazi dute diharduten komunitateen balioak eta sinesmenak nabarmenki aintzat hartzen direla.

Horrela, KSSIen bakantasuna balio intrintseko horri begira adierazten eta gauzatzen da. Era berean, balio soziala ere oso garrantzitsua da, baina ez hainbeste.

**31. irudia. Balio intrintseko eta sozial partekatua**



Iturria: geuk egin, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako *Contrast* II inkesta)

## **III. ZATIA ANALISI SAKON**

## 5. Joerak, motak eta berezitasunak

Emaitzak modu deskribatzailean aurkeztu ostean, atal honetan ikuspegi interpretatzailea aurkezten da: emaitzak zabalduz eta gurutzatuz, baita gaiari buruzko ezagutza gehitzen duten interpretatzeko gakoak eta gako kontzeptualak ekarriz ere.

Lehen atal hau bitan zatituta dago: «Berrikuntza-ekosistemak» eta «KSSIetako berrikuntzaren motak eta balioa».

Horietako bakoitzean, edukia bi azpiapartatutan banatuta dago:

- > Bata, aurreko emaitzak laburbiltzeko.
- > Bestea, analisisian sakontzeko.

## 5.1 Berrikuntza-ekosistemak

### 5.1.1 Berrikuntza-ekosistemen elementu orokorrak

Lehenik, funtsezko elementuak laburbilduko ditugu, berrikuntza-ekosistemen irudi orokor eta sintetiko bat konbinatzeko<sup>7</sup>.

- **Kulturaren, sormenaren eta berrikuntzaren eremuan jarduera neurtzeko ekimen ugari daude.** Desberdintasunek berrikuntzari eta KSSIei buruz dagoen duela gutxiko informazioarekin dute zerikusia. Neurketa KSSIetarako berariazko estrategiak garatzeko ezinbesteko baldintzatzat jo daiteke, besteak beste.
- **Estrategiak, gehienetan, kultura-eremuko berariazko eragileek zuzentzen dituzte** (eskualdeen % 50etan) **edo, gehienez jota, eragile sektorialek, jeneralistek edo zeharkakoek modu mistoan zuzentzen dituzte** (% 37,5etan). Kasuetako gutxi batzuek bakarrik adierazi dute haien estrategiak eragile jeneralistek zuzenduta daudela.

---

<sup>7</sup> 5. eranskinean, eskualde bakoitzeko elementu horien guztien laburpen bat ikus daiteke (errenkadaka begiratzuz, kasu bakoitza banan-banan beha daiteke eta zutabeka begiratzuz, berriz, alderdi edo aldagai zehatzei dagokien begirada konparatiboa edo zeharkakoa lor daiteke).

- Administrazio-maila bakoitzaren inplikazioari dagokionez, dinamikak desberdinak dira beheko mailetan (tokikoak edo eskualdekoak) eta goiko mailetan (estatukoak edo nazioartekoak).
  - **Diruz bestelako babesari dagokionez, beheko administrazio-mailak dira nagusi** (tokikoak eta eskualdekoak).
  - **Diru bidezko babesari dagokionez, goiko administrazio-mailak dira nagusi** (estatukoak eta nazioartekoak).
- Bai **babes ekonomikoan** bai **ez-ekonomikoan**, kasuak bi muturretan kokatzen dira. Ildo horretan, **nolabaiteko espezializazioa dago administrazio-mailaren arabera**. Arrazoizkoa da pentsatzea beheko administrazio-mailak ekosistemetatik hurbilago daudela eta neurri ez-ekonomikoak diseinatzeko eta abian jartzeko leku hobea ematen dietela. Bestalde, errazagoa da goiko administrazio-mailek gaitasun ekonomiko handiagoa edukitzea.
- **Politiketarako tresnei** dagokienez, azpimarratzekoa da **haisetako hiru KSSIetarako berariaz diseinatuta egon ohi direla**:
  - Inkubagailuak (eskualdeen % 81,25etan)
  - Klusterrak edo plataformak (% 68,75etan)
  - Babes ekonomikoko programak (% 62,5etan)


Gainerako tresnetan, pertsonalizazio sektorialerako joera txikiagoa da eta ez da joera orokorra. Izan ere, bereziki bi kasutan, joera da, hain zuzen, **programak KSSIetarako berariaz ez izatea** baina KSSIak barne hartzea:

- Parke zientifiko edo teknologikoak



- ▶ Aholkularitza eta prestakuntzarako programak

**32. irudia. Berrikuntza-ekosistemaren ezaugarriak zehazteko alderdien kategoria nagusien (ehuneko altuenak dituztenen) laburpena (kasuen % kategoria bakoitzean)**



Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (eskualdeko koordinatzaileei egindako *Contrast II* inkesta)


**5.1.2 Arreta berrikuntza-ekosistemekin lotutako dibertsitatean**

**Azpimarratu beharreko lehen ideia da berrikuntza, bere desberdintasunekin, aztertutako eskualde guztietan dagoela.** Erakundeak hautatzean arreta argi eta garbi erakunde berritzaileetan jarri den arren, kontuan hartu behar da sozioekonomiari eta berrikuntzari dagokienez askotariko testuinguruetan daudela, berrikuntza-indize globalean ikus dezakegunez. Beraz, KSSIen testuinguru zehatzak aztertu behar dira.

Horretarako, sektoreari eta haren berrikuntzari laguntzeko berariazko tresnei buruzko datuak eta emaitzei eta sektorearen ezaugarriei buruzko datuak konbinatu dira. Hala, bi analisi-ardatz sortu dira, zeinek ahalbidetzen baitute informazio guztia sintetizatzea eta bi alderdietako kasuak eta ekosistemak sailkatzea. Bi ardatzok berariazko tresnen maila KSSIen emaitzekin erlazionatzen dute:

- Tresna sektorialeiei dagokienez, inkestaren D eta E blokeetako informazioa, berrikuntza-inguruneari buruzkoa (4.3 apartatua), KSSiei eta berrikuntzari buruzko informazio zehatzaren existentziarekin (4.1 apartatua) konbinatu da.  
KSSIen emaitzak eta ezaugarriak direla-eta (KSSIen indarra), eskualdeak KSSIen garrantziari buruzko inkestan duen posizionamenduari buruzko informazio zehatza berrikuntza-indize globalari buruzko kanpoko informazio objektiboarekin konbinatu da. Horrela, KSSIen emaitzak hobeto funtsatu dira, informazio objektibo eta komunean oinarrituta.
- Galde-sortatik ateratako informazioa herrialde bakoitzak sormenezko produktuei dagokienez lortutako sailkapenarekin konbinatu da (liderrak, aurreratuak eta moderatuak edo goraka ari direnak bereizita, 3.2.1atalean azaldu bezala). Zehazki, inkestako datuetatik ateratako puntuazioa herrialde bakoitzak GIIaren «sormenezko produktuak» alderdian lortutako postua kontuan hartuta haztatu da.

33. irudia. Kasuen posizionamendua bi ardatzetan: KSSIen indarra (ardatz bertikala) eta KSSIetarako berariazko programen existentzia (ardatz horizontala). Bietako zero puntua ardatzen batezbestekoa da.



Iturria: geuk egina, eskualdeko koordinatzaileei egindako Contrast II inkestan eta berrikuntza-indize globalaren «sormen-emaitzak» alderdiari buruzko datuetan oinarrituta (3.2.1 atala).

1. Badago korrelazioa berariazko programen eta KSSIen indarraren artean (33. irudiak doikuntza-lerroa edo korrelazio lineala erakusten du).
2. Badaude zenbait «kasu-estratu» edo kasu-bloke KSSIen indarrari begira (33. irudiko eremu ilunduak).
  - a. Goiko eremua: Erresuma Batua - Cardiff (CCR), Danimarka eta AEB - Washington.
  - b. Tarteko eremua: Portugal - Região do Norte, Australia - Hego Australia, Espainia - Valentziako Erkidegoa, Italia - Puglia, AEB - Kalifornia, Finlandia, Estonia eta Alemania - Baden-Württemberg.
    - Bloke horretan, kasu gehiago biltzen dituen ardatz horizontaleko lehen laurak (batezbestekoa adierazten duen  $\theta$ tik oso hurbil, baina pixka bat azpian) eta gainerako laurak ( $\theta$ aren eskuinetara, batezbestekoaren gainean) bereizi daitezke.
  - c. Beheko eremua: India - Karnataka, Uganda (Afrikako ekialdea), Kenya, Hegoafrika - Lurmutur Mendebaldea eta Kolonbia - Antioquia.

Oro har, erlazio lineal moderatua ikusten da (Pearson-en korrelazio-koefizientea 0,446 da); beraz, ingurune konplexuenek indar handiagoa sortzeko joera daukate. Baina hori ez da beti gertatzen.

Beheko aldean, bai oro har bai berrikuntza-indize globalaren arabera sormen-eremuak dagokienez berrikuntza-profil moderatua edo goraka ari den profila duten herrialdeak daude. Kasu horiek modu independentean aztertuta ere nolabaiteko linealtasuna ikusten da. Antioquiak (Kolonbia) duen postua nabarmentzen da, KSSIen berariazko ekosistema konplexua daukalako (hau da, KSSIetarako berariazko programak askotarikoak dira).

Tarteko postuetan, konplexutasun-maila desberdinetako ekosistemak eduki arren KSSIen indarrari begira antzeko mailak lortu dituzten kasuen talde handi bat dago. Horrelakoak beti daude batezbestekoaren inguruan edo batezbestekoaren gainean.

Azkenik, gailurrean Cardiff (CCR, Erresuma Batua), Danimarka eta Washington (AEB) gailentzen dira. Kasu horietan, desberdintasun handiak daude KSSIen ingurune zehatzen konplexutasunean, baina hiruren artean nolabaiteko linealtasuna dago. Washingtonen (AEB) eta Danimarkan ikusten da KSSIen inguruneak hain konplexuak ez diren testuinguru batzuek ere oso emaitza nabarmenak dauzkatela. Beraz, ondoriozta dezakegu badaudela egoera hori sortzen duten kanpo-aldagaiak, kontu sozial eta ekonomiko orokorragoekin lotuta daudenak.

Eskualde edo herrialde bakoitzeko berrikuntza-ekosistemek emaitzei, indarrari eta KSSIetarako berariazko neurrien existentziari dagokienez dituzten berezitasunak aztertzean, ñabardura batzuk agertzen dira. Ñabardurok analisirako lagungarriak dira; izan ere, kasu batzuetan, testuinguruak ulertzean sortutako aurreiritziak ezeztatzen dituzte.

33. iruditik ateratzen den eskualdeen sailkapenaren arabera (8. taulan 4 profiletan laburbiltzen da), analisi-lerro horretan sakondu daiteke.

**8 taula. Eskualdeen sailkapena kulturaren eta sormenaren industriaren indarraren arabera eta KSSIetarako berariazko tresnekin berrikuntza-ekosistemetara egokitzeko moduaren arabera (33. irudia).**


<b>Grafikoaren eremua</b>	<b>Taldearen etiketa</b>	<b>Deskribapen orokorra</b>	<b>Kasuak</b>
Goiko eremua	<b>I testuingurua</b>	Liderrak diren emaitzak, KSSIen berezitasunetara egokitutako ekosistemekin edo halakorik gabe.	Erresuma Batua - Cardiff (CCR) Danimarka AEB - Washington

Tarteko eskuinaldeko eremua	<b>IIa testuingurua</b>	Emaitza aurreratuak, KSSIen berezitasunetara oso egokituta dauden ekosistemekin.	Alemania - Baden-Württemberg Finlandia Estonia AEB - Kalifornia
Tarteko ezker aldeko eremua	<b>IIb testuingurua</b>	Emaitza aurreratuak eta KSSIen berezitasunetara hein batean egokituta dauden ekosistemak.	Italia - Puglia Espainia - Valentziako Erkidegoa Portugal - Região do Norte Australia - Hego Australia
Beheko eremua	<b>III testuingurua</b>	Goraka ari diren emaitzak, KSSIen berezitasunetara egokitutako ekosistemak barne.	Kolonbia - Antioquia Hegoafrika - Lurmutur Mendebaldea Kenya Uganda (Afrikako ekialdea) India - Karnataka

Eskualde edo herrialde bakoitzeko erakundeen berrikuntzari buruzko datuak aztertuz gero, galdera hauek egin daitezke: KSSIetarako egokitutako ingurune zabal bat eduki behar da berrikuntza sortzeko? Berezitasun handiagoak berrikuntza handiagoa esan nahi du? Ez ezinbestean.

33. irudiko datuen arabera, **ez dago erlazio linealik KSSIen testuinguruaren eta haien kasuen berrikuntza-mailaren artean**. Alde batetik, goraka ari diren emaitzen testuinguruetan (III testuingurua) gainerakoetan baino berrikuntza biziagoa dago. Bestetik, garrantzitsua da kontuan hartzea KSSIen emaitza onak ez direla ezinbestean berrikuntzaren ondoriozkoak.

34. irudia. Kasuen berrikuntza-maila KSSIen testuinguruaren arabera.



34. irudiak kasuen berrikuntza-maila erakusten du, KSSi-en testuinguruaren arabera. «Produktuen berrikuntza» eta «prozesuen berrikuntza edo berrikuntza metodologikoa» aldagaien konbinazioa da. 1. mailan, berritu ez duten edo (produktuan nahiz prozesuan) aldaketa txiki bat bakarrik egin duten kasuak daude. 2. mailan, bai produktuan bai prozesuan aldaketa txikiak egin dituzten kasuak daude. 3. mailan, bietako batean aldaketa handi bat eta bestean aldaketa txiki bat egin duten kasuak daude. Azkenik, 4. mailan, bai produktuan bai berrikuntzan aldaketa handiak egin dituzten kasuak daude.



Iturria: geuk eginga, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako *Contrast II* inkesta)

Horri buruzko lehen galdera zera izan daiteke: nola egiten dute? Erantzuna, kasu honetan: nork bere baliabideekin (35. irudia). 35. irudiak erakusten du III eta IIb testuinguruetan norberaren baliabideak direla garrantzitsuenak, batez beste. Babes-egiturak dituen testuingururik ez dagoenez, eragileek berrikuntza-proiektuak beren baliabideekin bultzatzeko moduak bilatzen dituzte. Sari gisa, itzulkin ekonomiko handiagoa sortzen duten produktuak daude (36. irudia): III eta IIb testuinguruetan, aldaketa handiak izan dituzten produktuen ondoriozko diru-sarrerak % 69,1 eta % 61,1 dira, hurrenez hurren, eta IIa eta I testuinguruetan, berriz, % 46,9 eta % 53,3, hurrenez hurren.

**35. irudia.** Erakundeek zein mailatan uste duten beren baliabideekin bakarrik berritzen dutela (eskala 1etik [batere ez] 5era [guztiz] doa)

**36. irudia.** Produktu berritzaileen (produktu berrien edo nabarmen hobetu direnen) ondoriozko diru-sarreraren ehunekoa 2020-2022ko aldian.





Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako *Contrast* II inkesta)

Emaitzek orobat erakusten dute, hain zuzen ere, salbuespenak dauden arren, hobekien posizionatutako testuinguruetan KSSIetarako berariazko tresna edo estrategia gehiago daudela (9. taula: goiko aldean berdea, alegia, berezitasun handieneko kasuak adierazten duen kolorea, da nagusi).


Gainera, halaber agerrarazten dute testuinguru horietan dauden erakundeak maizago erabiltzen dituztela horrelako tresnak. I eta IIa testuinguruak batezbestekoaren gainean daude, eta IIb eta III testuinguruak, aldiz, batezbestekoaren azpian (37. irudia).

**9 taula. Kasuek, 8. taularen eta 33. irudiaren arabera 37. irudia. Honako hauen onuradunak diren kasuen ehunekoa: ordenatuta, erabilitako berariazko estrategien edo tresnen aholkularitza eta prestakuntzarako programak, I+G programak,**

kopuruaren batura (kopuru txikiena 0 da eta handiena, berriz, 9).

klusterrak, plataformak, inkubagailuak edo parke zientifiko edo teknologikoak.

Kasua	KSSIen testuinguru-mota	Berezitasunaren puntuazioa (KSSIetarako berariazko tresnen batura)
Erresuma Batua - Cardiff	I testuingurua	7/9
Danimarka - Danimarka		4/9
AEB - Washington		1/9
Alemania - Baden-Württemberg	IIa testuingurua	6/9
Finlandia - Finlandia		7/9
Estonia - Estonia		5/9
AEB - Kalifornia		6/9
Italia - Puglia	IIb testuingurua	2/9
Espainia - Valentziako Erkidegoa		4/9
Australia - Hego Australia		3/9
Portugal - Região do Norte		3/9
Kolonbia - Antioquia	III testuingurua	5/9
Hego Afrika - Hego Afrika		3/9
Kenya - Kenya		5/9
Uganda - Uganda		4/9
India - Karnataka		0/9



Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako Contrast II inkesta)

Horrela, konplexutasun txikiagoko testuinguruetan, hots, KSSIetarako berariazko tresna gutxiago dauzkatenetan, litekeena da erakundeak berrikuntza-proiektuak hobeto hautatzera behartuta egotera, hartzen duten arriskua dela eta. Hau da, apustu irmo hori ekonomiaren aldetik ere egiten da, dakartzkien mozkinen begira. **Baiezta dezakegu testuinguru jakin batzuetan ez daukatela huts egiteko lizentziarik. Eta ez dute hutsik egiten.**

Ukaezina da eragileak porrota saihesteko konprometituta daudela eta emaitzak onak direla, baina horrek ez du esan nahi egoerak horrelakoa izan behar duenik. Aitzitik, **huts egiteko lizentzia**

**edukitzea izan da azterketan parte hartu duten eragileen iruzkinetan behin eta berriro bildutako ideietako bat.** Batez ere kontua KSSIetan berritzea denean.

**KSSIetarako diseinatuta eta zuzenduta dauden berrikuntzari laguntzeko tresnarik ez egoteak ez du eragozten proiektu berritzaileak sortzea. Hala ere, ondoriozta dezakegu aldeko ekosistema bat edukitzeak berrikuntzaren aldeko dinamika bat sortzen duela eta horrek berrikuntza-mota eta berritzeko modua baldintzatu ditzakeela.**

Horrek berrikuntza-politikak testuinguruetara egokitzeke moduari buruzko galdera berriak dakartza: zer neurri behar dira ingurune bakoitzean? Zer indartu behar da ingurune aurreratuenetan, alegia, berrikuntza hedatuen dagoen inguruneetan? Eta goraka ari direnetan, hots, berrikuntza puntualagoa den inguruneetan? Dauden neurriak nola erabiltzen diren aztertuz, erantzuna susma daiteke.

Zenbait desberdintasun ikusten ditugu babes ekonomikoaren (laguntzak, dirulaguntzak, kreditu-lerroak, zerga-pizgarriak...) eta babes ez-ekonomikoaren (azpiegiturak, aholkularitza, prestakuntza) artean:

- ▶ Goraka ari diren emaitzak dituzten testuinguruetan (III testuingurua), autofinantzaketari, nazioarteko eragileei eta, hein txikiagoan baina beste testuinguru batzuetan baino gehiago, banku-fundazioei edo inbertitzaile pribatuei heltzen zaie.
- ▶ Emaitza hobeak edo oso ekosistema bereziak dauzkaten testuinguruetan (I eta IIa testuinguruak), oso nabarmena da eskualdeko eta tokiko eragileek bai berrikuntzaren finantzaketan bai diruz bestelako neurrietan duten garrantzia.

- ▶ 37. irudian erakusten den moduan, emaitza hobek dituzten testuinguruetan (I. testuingurua) eta oso ekosistema bereziak dituztenetan (IIa testuingurua), euskarri-egitura sendoak eta askotarikoak dauzkatenetan, horrelakoen berri duten eta erabiltzen dituzten eragileen ehunekoak altuagoak dira.

Orduan, zein izan liteke ekosistema onuragarriago baten edo berezitasunetara hobeto egokituta dagoen ekosistema baten zeregina? Kanpoko beste faktore batzuek (sozialek eta ekonomikoek, makroek edo testuingurukoek) emaitzei eragin diezaieketen arren, **ekosistema lagungarriago edo zehatzago batek ehun berritzailea sortzen laguntzen du. Hain egokituta ez dagoen ekosistema batek, aldiz, berrikuntza-proiektuak bakarrik sortzen ditu. Batez ere, efektu kualitatiboa da, ez nahitaez kuantitatiboa, eta ez du zertan emaitza ekonomiko eta produktiboetan islatu.**

Nolanahi ere, eskualdeko koordinatzaileek inkestan egindako iruzkin kualitatiboak analizatuz, KSSIen testuinguru bakoitzean dituzten eskariak, erronkak eta aukerak ezagut ditzakegu:

- ▶ **I testuingurua**, liderrak diren emaitzak eta berezitasun-maila edo egokitasun-maila desberdinak dauzkaten eskualde eta herrialdez osatua: hobeto garatzeko (KSSIen testuinguruaren ezaugarrien barruko zein kanpoko faktoreen ondorioz jada emaitza onak sortzen badituzte ere), **neurrirako jantziaren ideia sakondu beharko lukete, sektorearen ezaugarriekin bat datozen indartze ekonomikoko tresnekin** (merkaturatu aurreko garapen luzeak, monetizazio-bide bakarrak, jabetza intelektuala...). **Gaitasunak indartzea, lizitazio publikoetan irtenbide sortzaileak eta berritzaileak areagotzea, nazioartekotzea eta sareak eta elkarrekintza-espazioak indartzea.**
- ▶ **IIa testuingurua**, emaitza aurreratuek eta oso ekosistema egokituak edo bereziak dauzkaten eskualde edo herrialdez osatua: KSSIetan dibertsitatea, ekitatea eta inklusioa mantendu

eta handitzea, baita ekonomiaz bestelako inpaktuak ere. Erronka nagusia alderdi ekonomikoari dagokio: talentua eta negozioa erakartzeko eta KSSIen mozkinak handitzeko baldintzak sortzea, ideia hedatzea eta sektoreok lehiakortasunari ekarpena egiten diotela sinetsaraztea.

- ▶ **I Ib testuingurua**, emaitza aurreratua eta ekosistema nolabait egokituak edo bereziak dauzkaten eskualde edo herrialdez osatua: inguruneak indartzea, KSSIetako eta beste sektore zientifiko edo teknologikoetako eragileen arteko berrikuntza gurutzatua edo polinizazio gurutzatua sustatuz (adibidez, zentroak edo *hubak*, I+G funtsak, hazitegiak...), eta ekonomia garatzeko sinergiak bultzatzea, sare eta nazioartekotze handiagoarekin.
- ▶ **III testuingurua**, goraka ari diren emaitzak eta askotariko egokitasun-mailak edo berezitasun-mailak dauzkaten eskualde edo herrialdez osatua: gaikuntza-programak, ekintzailtzarako babesak eta KSSIak babesteko tresna irudimentsuak behar dituzten biztanle gazteen tasa altuak daukate. Ikusitakoa kontuan hartuta, «huts egiteko lizentzia» horiek gehiago errazten dituzten babes-tresnak behar dituzte, norberarenak ez diren baliabideekin. Oro har, ez KSSI gisa bakarrik, berritzeko zailtasun handiagoak dauzkaten testuinguruak izatearekin lotutako zailtasunei aurre egiten diete.

## 5.2 KSSIetako berrikuntzaren motak eta balioa

### 5.2.1 KSSIetan berritzen: panoramika orokorra

Behin «berrikuntza-giro» bat egoteko lagungarriak diren testuinguruaren elementuak analizatuta, aztertutako kasuek egiten duten berrikuntza-motan jarriko dugu arreta.

10 taula. KSSIetako berrikuntzaren ezaugarriak zehazten dituzten funtsezko adierazleen laburpena

<b>Prozesuen berrikuntza edo berrikuntza metodologikoa</b>	<b>Produktuen berrikuntza (ondasunak, zerbitzuak edo obra artistikoak)</b>	<b>Berrikuntza konbinatua</b>	<b>Oinarri teknologikoko berrikuntza</b>
Aldaketa handiak sartu dituzten kasuen %	Aldaketa handiak sartu dituzten kasuen %	Bai prozesuetan bai produktuetan aldaketa handiak sartu dituzten kasuen %	«Zer neurritan datoz zure berrikuntzak teknologiaren erabileratik?» galderari «nabarmen» edo «guztiz» erantzun zioten kasuen %
<b>% 67,1</b>	<b>% 63,6</b>	<b>% 54,5</b>	<b>% 51,1</b>
<b>Berrikuntza irekia edo lankidetzakoa</b>	<b>Berrikuntzak garatzeko kolaboratzaile nagusiak</b>	<b>Sektore arteko berrikuntza</b>	<b>Norberaren baliabideen bidez egindako berrikuntza-maila</b>
«Zer neurritan jaso duzu berritzeko kanpoko babesa?» galderari «nabarmen» edo «guztiz» erantzun zioten kasuen %	Kolaboratzaileok hautatu zituzten kasuen % Gehienek hautatutako kolaboratzaileak	«Zure berrikuntza zurea ez den sektore bateko enpresei edo erakundeei zuzenean zuzenduta egon da?» galderari «beti» erantzun zioten kasuen %	«Zer neurritan egin zenuen berrikuntza zeure bitarteko edo baliabideen bidez?» galderari «nabarmen» edo «guztiz» erantzun zioten kasuen %
<b>% 59,1</b>	<b>Unibertsitateak = % 65,9 Aholkulariak = % 65,9 Sektore bereko erakundeak = % 64,8 Erabiltzaileak edo bezeroak diren erakundeak = % 60,2</b>	<b>% 29,6</b>	<b>% 71,6</b>

Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako Contrast II inkesta)

Lehenik eta behin, gogoratu behar da laginean berrikuntza-maila altua dagoela. Kasuak hautatzean, praktika berritzaileak dauzkaten erakundeei eman zaie lehentasuna. Kasuen % 67,1ek prozesuen berrikuntza edo berrikuntza metodologiko nabarmenak egin dituzte 2020-2022ko aldian, eta % 63,6k produktuen berrikuntzari begira egin dituzte aldaketa nabarmenak.

% 54,6k bi alderdietan egin dituzte aldaketa nabarmenak. Horrek agerian jartzen du **berrikuntza-dinamika indartu** bat dagoela, zeinean bi motetako aldaketak konbinatzen baitira. Horrek erakusten du sektorean dinamika zehatz bat egon daitekeela: **produktuen berrikuntzari dagokionez, sektoreko jardueraren izaeragatik, berrikuntzetako asko zerbitzuenak izango dira berariaz**. Hortaz, berrikuntzek izaera konbinatua eduki dezakete, alegia, aldi berean produktuarenak eta zerbitzuarenak izan. Hala, ez da harrigarria prozesuen berrikuntza nagusiek eskaintzen diren zerbitzuekin zerikusia izatea eta «ekoizteko, ondasunak garatzeko edo zerbitzuak emateko metodoak» eta «informazioa prozesatzeko edo komunikatzeko metodoak» arloetan taldekatuta egotea.

Prozesuari dagokionez, honako hau nabarmentzen da:

- ▶ **Oro har, norberaren bitarteko eta baliabideen bidez egindako berrikuntzaren maila altua da** (% 71,6k adierazi dute berrikuntza guztia edo asko beren bitartekoei esker egiten dutela).
- ▶ **Teknologiaren erabilera, berrikuntzaren oinarri gisa, oso desberdina da:** % 51,1ek baieztatu dute berrikuntzak «guztiz» edo «ia guztiz» datozela teknologiaren erabileratik. Hala ere, eragileen ehuneko handi batek (% 69,3) baieztatu du lehen erabili gabeko teknologia berria eskuratu duela eta % 60,2k esan dute erakundeak jada erabilitako teknologiak erosi edo eguneratu dituztela.


- ▶ **Eragile gehienek (% 59,1) baieztatu dute maiz edo aldizka dihardutela berritzeko elkarlanean.** Bazkide nagusiak «unibertsitateak edo goi-mailako beste hezkuntza-erakunde batzuk», «aholkulariak», «sektore bereko erakundeak» eta «erabiltzaileak edo bezeroak diren erakundeak edo enpresak» dira.
- ▶ Kasu askok, gutxiengoa izan arren (10etik hiru), baieztatu dute haien berrikuntzak beti daudela beste sektore batzuei zuzenduta.
- ▶ Azkenik, jabetza intelektuala babesteko eta merkataritzaren aldetik bereizteko erduei dagokienez, nabarmentzekoa da gutxi gorabehera 10 eragiletik 3k erregistratu dituztela markak (% 31,8) edo erreklamatu dituztela egile-eskubideak (% 27,3) 2020-2022ko aldian. Maiztasun txikiagoarekin, % 14,8k arauak edo etiketak eskatu dituzte, % 12,5ek sekretu komertzialak erabili dituzte, % 11,4k patenteak eskatu dituzte eta % 7,9k diseinu industrialak erregistratu dituzte.

KSSIetako berrikuntzaren balioari eta inpaktuari dagokienez, ohiko hiru inpaktu-alderdietatik, **gizartearen gaineko eragina gailentzen da bereziki eta balio ekonomikoa ere oso esanguratsua da.** Zalantzarik gabe, eta sektoreak erreibindikatutako bitxitasuna babestuta, kultura-balio intrintsekoaren alderdian sortzen dira inpaktu handienak.

Gainera, gogorarazi behar da, ekonomiari begira, erakundeek baieztatu dutela haien diru-sarreraren % 59,1 aldaketa nabarmen aplikatu zizkieten produktuetatik etorri zela 2022an. Guztira, **kasuen % 76,1ek baieztatu zuten haien diru-sarreraren % 40 baino gehiago produktu berritzaileetatik zetorrela.** Datu horrek erakusten du erakunde berritzaileei mozkin ekonomiko nabarmenak dakarztekiela berritze-jarduerak.



**38. irudia. Inpaktuen laburpena alderdika. Adierazle bakoitzean inpaktu nabarmenak aipatu dituzten kasuen ehunekoa eta alderdi bakoitzaren batezbestekoa.**



Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako Contrast II inkesta)

Beraz, KSSIetako berrikuntzak, emaitza onuragarri indibidual edo pribatuak (batera orokorrak ere badirenak) ez ezik, kanpo-efektu positibo garrantzitsuak ere sortzen ditu, batez ere gizartearen eta kulturaren arloan. Izan ere, ekonomiaren aldetik ere, enpleguaren gorakada eta haren kalitatearen hobekuntzan izandako inpaktu positiboak nabarmentzen dira. Beraz, **emaitzek gizarte-ongizateko osagai bat daukate.**

Denetara jota, horrek guztiak **paregabe** egiten du **KSSIetako berrikuntzaren balioa.**

### ***5.2.2 Sakonago: berrikuntzaren ezaugarriak eragilearen eta testuinguruaren arabera***

#### **Erakundeei dagokienez**

Berrikuntzaren ezaugarrietan sakontzen hasteko, lehenik eta behin, berritzeko arrazoietan jarri dugu arreta. Bigarrenik, arrazoi horiek berrikuntza-profil bakoitzean desberdinak diren arakatu dugu.

Oro har, motibazio guztiak ikusita, agerian jarri da enpresarekin eta kulturarekin lotutakoek lehen postuan berdintzen dutela, % 31,8rekin. Hala ere, kontuan hartu behar da arrazoi zerrenda arrazoi ekonomikotan eta ez-ekonomikotan zatitu daitekeela eta hezkuntzaren, osasunaren, ingurumenaren, gizartearen eta hiriaren arlokoak batzen badira arrazoi ez-ekonomikoak direla nagusi. Era berean, 4.4.3 apartatuan ikusi den moduan, bigarren mailako arrazoiez galdetzean, **joera edo foku ez-ekonomikoa argi eta garbi ikusarazi da.**

Nolanahi ere, eragileen berrikuntza-profilaren arabera, motibazio desberdinak aurkitu dira. Arrazoiak aztertzeke erabili diren berrikuntza-profilak 5.1.2 ataleko 34. irudian aipatutakoak

dira. Berrikuntzak sortzen dituen aldaketen sakontasuna eta zabaltasuna erakusten du eta 4 profil zehazten ditu:

- ▶ **Maila baxuko berritzaileak** (ez dago aldaketak izan dituen produkturik edo aldaketa txiki bat bakarrik egon da, produktuarekin edo prozesuarekin lotutako berrikuntza-alderdian: % 6,8).
- ▶ **Maila ertain-baxuko berritzaileak** (aldaketa txikiak bai produktuan bai prozesuan: % 17,1).
- ▶ **Maila ertain-altuko berritzaileak** (aldaketa txiki bat alderdietako batean eta aldaketa handiak bestean: % 21,6).
- ▶ **Maila altueneko berritzaileak** (aldaketa handiak bai produktuan bai prozesuan: % 54,5).

Ikusi da arrazoi ekonomikoak «maila baxuan» eta «ertain-baxuan» direla nagusi eta maila ertain-altuko berritzaileetan eta maila altuenekoetan, berriz, batez ere motibazio kulturalak edo ekonomikoak ez diren beste batzuk gailentzen direla (11 taula). Bai prozesuan bai produktuan aldaketa handiak sartu dituzten kasuetan jartzen badugu arreta, arrazoi-sorta zabalagoa da.

**11 taula. Berritzeko arrazoi nagusiak, erakundeen berrikuntza-profilaren arabera**


Negoioa	Kultura	Hezkuntza	Ingurumena	Osasuna	Gizartea	Hiria	Beste batzuk
(Norberaren edo hirugarrenen estrategiak eta emaitza ekonomikoak hobetzea)	(Partaidetza areagotzea edo esperientzia kulturala hobetzea)	(Hezkuntzalanak eta ikaskuntza erraztea)	(Jasangarritasunari ekarpena egitea)	(Osasun-zerbitzuak zabaltea)	(Herritarren partaidetza erraztea)	(Inguruneak eta komunitateak eraldatzea)	

Maila baxuko berritzaileak	% 50,0	% 16,7	% 16,7	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 16,7
Maila ertain-baxuko berritzaileak	% 53,3	% 26,7	% 0,0	% 6,7	% 6,7	% 0,0	% 6,7	% 0,0
Maila ertain-altuko berritzaileak	% 16,7	% 44,4	% 22,2	% 0,0	% 5,6	% 0,0	% 0,0	% 11,1
Maila altueneko berritzaileak	% 28,6	% 30,6	% 14,3	% 8,2	% 0,0	% 4,1	% 6,1	% 8,2
<b>Batezbestekoa</b>	<b>% 31,8</b>	<b>% 31,8</b>	<b>% 13,6</b>	<b>% 5,7</b>	<b>% 2,3</b>	<b>% 2,3</b>	<b>% 4,6</b>	<b>% 8,0</b>

Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako *Contrast* II inkesta)

Berrikuntza-profila prozesuen berrikuntzaren beste ezaugarri batzuekin ere lotuta dago (39. irudia):

**39. irudia. Berrikuntzarekin lotutako prozedurak, erakundeen berrikuntza-profilaren arabera.**



Iturria: geuk egin, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako *Contrast* II inkesta)

- Adibidez, lehenik eta behin, ikusten da **berrikuntza handieneko kasuetan norberaren baliabideetatik datorrela.**  
Hala, arrazoizkoa da pentsatzea jarduera berritzaile txikieneko kasuek kanpoko palanka gehiago behar dituztela. Horrela, norberaren baliabide eta bitartekoetan oinarritu samar dagoen dinamika batean sartzen lagunduko zaie.
- **Zenbat eta gehiago berritu, orduan eta babes handiagoa ikusten da berariazko I+G baliabideetan ere, giza baliabideei zein baliabide ekonomikoiei dagokienez.**


Beraz, badirudi trebetasunek zeregin garrantzitsua daukatela jarduera berritzailea sustatzeko.

- Berrikuntza irekiari dagokionez, ikusten da garrantzitsu samarra dela profil berritzaileenak dauzkaten erakundeetan, gutxien berritzen duten kasuetan izan ezik. **Berritzaileenak berritzeko lankidetzari gehien heltzen diotenak dira.** Beraz, pentsa daiteke lankidetzaren sustatzea ere funtsezko kontua dela jarduera berritzailearen garapenean.
- Berrikuntza handieneko profilarekin lotutako elementu nagusia da **teknologia erabiltzea eta menderatzea oso garrantzitsua dela: zenbat eta biziagoa izan berrikuntza-profila, orduan eta handiagoa da berrikuntzara zuzendutako teknologiaren erabilera.**
- Azkenik, ikusi da sektore arteko berrikuntzarako joera nahiko zeharkakoa dela profil guztientzat eta talde guztietan kasuen % 30 inguru biltzen dituela.

Berrikuntzarako motibazioak eta prozesuarekin lotutako kontuak ikusita, emaitzez galdetzeko garaia heldu da. Erakundeek adierazitako batez besteko inpaktuak **nolabaiteko erlazio lineala** dauka, **batez ere inpaktu ekonomikoari eta, hein txikiagoan, inpaktu sozial eta intrintsekoari dagokienez.** Ingurumen-inpaktuak eta balio sozial partekatua dira erlazio argirik ez dagoen bi alderdiak, baina maila baxuko berritzaileek inpaktu txikiak izan zituzten.

Oro har, sektorearen jarduerak berak (berritzailea izan zein ez) inpaktu sozial eta kultural hori (intrintsekoa eta gizartean partekatua) sortzen duen arren, jarduera berritzaileak efektu positiboak **biderkatzen** ditu.

**40. irudia. Berrikuntzaren inpaktuak, erakundeen berrikuntza-profilaren arabera**




Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako *Contrast* II inkesta)

Azkenik, profilen arteko desberdintasunak gorabehera, kontuan hartuta kasu gehien-gehienek badaukatela jarduera berritzailea, alde jakin batzuk atzeman dira berritzeko dauzkaten erronkei dagokienez. Hortaz, **berritzaileen profilak bi taldetan multzokatu dira**: batetik, maila baxuko eta maila ertain-baxuko berritzaileak eta, bestetik, maila ertain-altuko eta maila altueneko berritzaileak (41. irudia).

41. irudia. Berritzeko zailtasunak, erakundeen berritze-profilaren arabera. Eskala 1etik (garrantzi txikiko faktoreak) 3ra (garrantzi handiko faktoreak) doa





Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako Contrast II inkesta)

**Bi taldeek uste dute erakundearen barruko finantzaketa-falta dela inpaktu handieneko erronka, baina are gehiago berritzaileenek. Berritzaileen aburuz, bigarren erronka ere funtsik**

ezarekin lotuta dago; kasu honetan, kanpoko iturri pribatuetakoekin. Bestalde, kostu altuak gutxien berritzen dutenentzat dira inpaktu handieneko bigarren faktorea. Nolanahi ere, hiru faktoreok nagusitzen dira erronken taulan, alde ñimiñoekin.

Grafikoaren erdialdean adostasuna dago erronka potentzialen balorazioan, baina desberdintasun handienak inpaktu txikieneko faktoreetan agertzen dira. Ildo horretan, bereziki deigarria da **gutxien berritzen dutenen artean inpaktu-faktore garrantzitsua dela erakundearen barruan beste lehentasun batzuk egotea. Era berean, ziurgabetasuna eta merkatuko lehia garrantzitsuagoak dira gutxien berritzen dutenen artean berritzaileen artean baino.**

### **Testuinguruei dagokienez**

Atal honetan, KSSIetako berrikuntza ikertzen amaitzeko, aurrekoan (8. taula, 5.1.2 atala) identifikatutako KSSIen berrikuntza-testuinguruetan oinarritutako analisia egiten da:

- I testuingurua: liderrak diren emaitzak, KSSIen berezitasunetara egokitutako ekosistemekin edo halakorik gabe.
- IIa testuingurua: emaitza aurreratuak eta oso ekosistema egokituak edo bereziak.
- IIb testuingurua: emaitza aurreratuak eta hein batean egokituta dauden edo bereziak diren ekosistemak.
- III testuingurua: goraka ari diren emaitzak, KSSIetarako egokituta dauden edo zehatzak diren ekosistemak barne.

Garrantzitsua da gogoan izatea, ikusi den moduan, ez dagoela korrelazio linealik testuinguruen eta berrikuntza-mailaren artean (34. irudia, 5.1.2 apartatua). Izan ere, berrikuntza oso bizia da goraka ari diren emaitzen testuinguruan (III testuinguruan). Gutxien berritzen dutenak gainerako testuinguruetan banatuta daude. Hala, alderdi kuantitatiboan edo

mailaren alderdian korrelazio linealik ez dagoen arren, badaude testuinguruaren arabera desberdintasun kualitatiboak.

Lehenik eta behin, testuinguru bakoitzean nagusi diren motibazioei begira (12. taula), honako hau ikus dezakegu:

**12 taula. Berritzeko arrazoi nagusiak, erakundearen testuinguruaren arabera**

	<b>Negozioa</b> (Norberaren edo hirugarrenen estrategiak eta emaitza ekonomikoak hobetzea)	<b>Kultura</b> (Partaidetza areagotzea edo esperientzia kulturala hobetzea)	<b>Hezkuntza</b> (Hezkuntza-lanak eta ikaskuntza erraztea)	<b>Ingurumena</b> (Jasangarritasunari ekarpena egitea)	<b>Osasuna</b> (Osasun-zerbitzuak zabaltzea)	<b>Gizartea</b> (Herritarren partaidetza erraztea)	<b>Hiria</b> (Inguruneak eta komunitateak eraldatzea)	<b>Beste batzuk</b>
I testuingurua	% 41,7	% 41,7	% 0,0	% 8,3	% 0,0	% 0,0	% 8,3	% 0,0
IIa testuingurua	% 30,4	% 13,0	% 21,7	% 17,4	% 4,4	% 0,0	% 4,4	% 8,7
I Ib testuingurua	% 26,1	% 52,2	% 8,7	% 0,0	% 4,4	% 0,0	% 4,4	% 4,4
III testuingurua	% 33,3	% 26,7	% 16,7	% 0,0	% 0,0	% 6,7	% 3,3	% 13,3
<b>Batezbestekoa</b>	% 31,8	% 31,8	% 13,6	% 5,7	% 2,3	% 2,3	% 4,6	% 8,0

Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako *Contrast* II inkesta)

→ **Emaitza nabarmenak** dauzkaten testuinguruetan (I testuingurua), **arrazoi kulturala eta enpresarekin lotutakoa parekatzen dira** eta bi alderdi horietan metatzen da. **Emaitza aurreratuak eta konplexutasun handiko ekosistemak dauzkaten testuinguruetan** (IIa testuingurua), berriz, **arrazoi-sorta zabalago** bat dago eta hezkuntzarekin eta ingurumenarekin lotutakoak gailentzen dira (arrazoi kulturala, aldiz, ez da gainerako testuinguruetan bezain garrantzitsua).

- **Emaitza aurreratuak eta konplexutasun ertaina** dauzkaten testuinguruetan (IIb testuingurua), **arrazoi kulturalak kasu gehienak biltzen dituzte.**
- Azkenik, **goraka ari diren emaitzak** dauzkaten testuinguruetan (III testuingurua), **arrazoien banaketa zabalagoa dago berriro ere** eta arrazoi kulturalak eta enpresarekin lotutakoak garrantziaren aldetik konparagarriak dira, baina ez daukate I. testuinguruko garrantzia. Kasu horretan, hezkuntzarekin lotutako arrazoia ere badira nabarmentzekoak (baina IIa testuinguruan baino gutxiago).

**13 taula. Berritzeko kolaboratzaileak, erakundeen testuinguruaren arabera**

	I testuingurua	IIa testuingurua	IIb testuingurua	III testuingurua	Batezbestekoa
Aholkulariak	% 91,7	% 52,2	% 56,5	% 73,3	% 65,9
Unibertsitateak edo goi-mailako beste hezkuntza-erakunde batzuk	% 50,0	% 87,0	% 69,6	% 53,3	% 65,9
Sektore bereko erakundeak	% 66,7	% 69,6	% 56,5	% 66,7	% 64,8
Erabiltzaileak edo bezeroak diren erakundeak edo enpresak	% 66,7	% 69,6	% 69,6	% 43,3	% 60,2
Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	% 58,3	% 73,9	% 39,1	% 43,3	% 52,3
Eskualdeko gobernua	% 58,3	% 65,2	% 43,5	% 30,0	% 46,6
Nazioarteko erakundeak	% 16,7	% 47,8	% 34,8	% 66,7	% 46,6
Ekipoen, materialen, osagaien edo software-en hornitzaileak	% 50,0	% 47,8	% 39,1	% 43,3	% 44,3
Beste konpainia edo erakunde batzuk	% 75,0	% 47,8	% 26,1	% 43,3	% 44,3
Tokiko gobernua	% 33,3	% 60,9	% 34,8	% 36,7	% 42,1
Kolaboratzaile informalak	% 50,0	% 34,8	% 34,8	% 43,3	% 39,8
Estatuko gobernua	% 50,0	% 47,8	% 21,7	% 36,7	% 37,5

Sektore publikoko erabiltzaileak edo bezeroak	% 41,7	% 43,5	% 21,7	% 16,7	% 28,4
Korporazioak edo banku-fundazioak	% 16,7	% 30,4	% 8,7	% 26,7	% 21,6
Zentro teknologikoak, parke zientifikoak...	% 8,3	% 39,1	% 17,4	% 13,3	% 20,5
Enpresa-talde bereko beste erakunde batzuk	% 25,0	% 17,4	% 4,4	% 30,0	% 19,3

Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako Contrast II inkesta)

Testuinguruak direla eta, kasu bakoitzeko kolaboratzaile nagusiekin (13. taula) lotutako egitate bat azpimarratu behar da; izan ere, **agerian jarri da lankidetzaren berrikuntza bultzatzeko faktore garrantzitsua dela.**


**Puntako emaitzak dauzkaten testuinguruetan (I testuingurua), aholkulariekiko eta (beste sektore batekoak diren eta bezeroak ez diren) beste enpresa edo erakunde batzuekiko lankidetzak gailentzen dira.** Bi kolaboratzaileok testuinguru horietan duten presentzia munduko batezbestekoa baino askoz ere altuagoa da.

**Emaitza aurreratuak eta oso ekosistema egokituak dauzkaten testuinguruei (IIa testuingurua) begira, nabarmentzekoa da kolaboratzaile-sorta handiena daukatela.** Ikus daitekeenez, berdea da nagusi zutabe horretan; horrek esan nahi du kolaboratzaileen presentzia hedatuagoa dagoela testuinguru horietan beste batzuetan baino. Bestalde, emaitza aurreratuak baina hein batean egokituta dauden edo bereziak diren ekosistemak dauzkan testuingurua dugu (IIb testuingurua).

Azkenik, **goraka ari diren emaitzak dauzkaten testuinguruetakoa (III testuingurua) kasuei heltzean, azpimarratzekoa da aholkulariek ere zeregin garrantzitsua dutela, nazioarteko erakundeekin batera.** Sektore bereko erakundeak ere garrantzitsuak dira, lagin guztian bezala.

Inpaktuei dagokienez, emaitzek goraka ari diren testuinguruetakoa (III testuingurua, berezitasun-maila desberdinetan goraka ari diren emaitzak) kasuen eta gainerakoetako (I, IIa eta IIb testuinguruak) kasuen arteko desberdintasunak bakarrik erakusten dituzte, baina ez dute agerian jartzen azken hiru multzoetako kasuen arteko desberdintasunik. Eta alderdi jakin batzuetan soilik da nabariagoa: **batez ere ekonomiari eta gizarteari begira, batezbestekoarekin erkatuta, III. testuinguruan aipatutako inpaktu guztiak handiagoak dira.**

**42. irudia. Berrikuntzaren inpaktuak, erakundearen testuinguruaren arabera**



Iturria: geuk egina, inkestako datuetan oinarrituta (erakundeei egindako Contrast II inkesta)

## 6. KSSIetako berrikuntzaren neurketa: irismena eta mugak

*Contrast* azterketan, neurketak bi alderdiri heltzen die: **ekosistemei eta erakundeei**.

KSSIetako berrikuntza-ekosistemak neurtzeko, *Contrast* I azterketa pilotuan, KSSIetako berrikuntza-ekosistemei heltzeko aintzat hartu behar diren tresnen eta eragileen mapa prestatu zen. Eskema hori *Contrast* II azterketan aplikatu eta hobetu da. Egungo mapak honako hauek hartzen ditu kontuan:

→ Tresna-motak:

- Ekonomikoak (dirulaguntzak, kreditu-lerroak, zerga-pizgarriak...) eta diruz bestelakoak (inkubagailuak edo azpiegiturak, klusterrak, aholkularitza, prestakuntza...).

→ Eragile-motak eta estrategia-motak:

- Sektorialak (KSSIetarako berariazkoak) eta jeneralistak (garapen ekonomikoa, industria, zientzia eta teknologia...).

→ Administrazio-mailak:

- Tokikoak, eskualdekoak, naziokoak eta nazioartekoak.

Alderdi horiek KSSIekin lotutako ezaugarriak zehazteko eta ekosistemak aztertzeko esanguratsuak diren elementu guztiak biltzen dituzte.

Bestalde, berrikuntza erakunde-mailan neurtzean, kontu garrantzitsuak azaleratzen dira. Izan ere, alderdi hori zuzenean lotuta dago *Contrast* proiektua inspiratu zuten arrazoieta batekin, alegia:

- › KSSIen berezitasuna erakusten du, berrikuntza kulturalak bereizgarri dituen alderdiak, beste sektore batzuetarako ezarritako esparruetan islatuta ez daudenak eta izaera paregabea ematen dietenak, identifikatuz.

Hala ere, KSSIen neurketaren oinarrizko zatia berrikuntza oro har neurtzeko ezarritako esparruetatik dator eta honako hauekin lotutako alderdiak hartzen ditu barne:

- › Produktuen berrikuntza
- › Berrikuntza metodologikoa edo prozesuena
- › Berrikuntza irekia
- › Sektore arteko berrikuntza
- › Teknologiaren garrantzia
- › I+G baliabideak
- › Ekonomia-inpaktua

Erakunde-mailako berrikuntzaren neurketaz gogoeta egiteko, *Contrast* II azterketak bi galdera-mota sartu ditu galde-sortan:

- A.** Item edo galdera estandarizatuak, KSSIetako erakundeak ordezkatuta sentitzen diren eta dauden inkesta orokorrei erantzuteko gai diren egiaztatzeko.
- B.** Item edo galdera propioak, inpaktuekin lotuta dauden eta KSSIen berezitasuna ikusgai egitea ahalbidetzen duten alderdi bereziak barne.



Ariketa hori egiteko, Europar Batasunaren berrikuntza komunitarioko inkesta (*Community Innovation Survey*) hartu zen erreferentziazat<sup>8</sup>. Ondo estandarizatutako eta irismen handiko tresna da eta horren bidez ideia hauek egiazta daitezke: nola egokitzen diren KSSIak inkesta orokorretara eta zertan diren paregabeak.

## **KSSIen egokitzapena berrikuntza neurtzeko ezarritako esparruetara**

Inkestan prozesuen eta produktuen berrikuntzaren kontzeptu nagusiak hartu ziren barne eta egokitzapen txiki bat egin zen produktuen berrikuntzan «obra artistikoak» etiketa sartzeko.

Definizio bakoitzarekin lotutako kontzeptuek KSSIak zer neurritan ordezkatzeko dituzten baloratze aldera, galdera zehatz bat sartu zen inkestatutako erakundeek egindako aldaketak eta berrikuntzak kontzeptuokin bat datozen ebaluatzeko.

Prozesuen berrikuntzaren definizioan alderdi hauetan egindako aldaketak sartzen dira:

1. Ekoizteko, ondasunak garatzeko edo zerbitzuak emateko metodoak
2. Informazioa prozesatzeko edo komunikatzeko metodoak
3. Erakundearen prozeduretarako edo kanpo-harremanetarako praktikak
4. Antolatze, erabakiak hartze edo giza baliabideak kudeatzeko metodoak
5. Sustatzeko, paketatze, prezioak finkatzeko, produktuak posizionatzeko edo beste administrazio-eragiketa batzuk egiteko metodoak
6. Kontabilitate-metodoak edo beste administrazio-eragiketa batzuk

---

<sup>8</sup> Contrast galde-sorta diseinatzean argitalpen berriena 2020koa zenez, galde-sortan urte hori hartu da erreferentziazat. Euskal Estadistika Erakundeak (Eustat) egokitutako bertsioa erabili da: [https://www.eustat.eus/comun/ExtractorBlob.ashx?id=cu\\_223202\\_2020.pdf](https://www.eustat.eus/comun/ExtractorBlob.ashx?id=cu_223202_2020.pdf)  
Jatorrizko bertsioa Eustaten webgunean kontsulta daiteke: [https://ec.europa.eu/eurostat/cache/metadata/Annexes/inn\\_cis12\\_esms\\_an2.pdf](https://ec.europa.eu/eurostat/cache/metadata/Annexes/inn_cis12_esms_an2.pdf)

## 7. Logistikarako, emateko edo banatzeko metodo berriak edo nabarmen hobetuak

Prozesuaren kontzeptuan aldaketak (txikiak zein handiak) egin dituztela adierazi zuten kasuetako batek ere ez du esan aurreko puntuetako bat ere ez datorrela bat bere kasuekin. Oro har, 4.4.1 apartatuan azpimarratu denez, aurreko zerrendako lehen bost kontzeptuetan, eremu horiek egindako aldaketetara ezin zaizkiela aplikatu baieztatu duten kasuak % 11 eta % 24 izan dira. Azken bietan, kopuruak % 36 eta % 49 izan dira, hurrenez hurren.

«Guztiz edo ia guztiz bat datoz» adierazi duten kasuen ehunekorik altuena daukaten itemak «ekoizteko, ondasunak garatzeko edo zerbitzuak emateko metodoak» (% 48) eta «informazioa prozesatzeko edo komunikatzeko metodoak» (% 45) dira.

Zalantzarik gabe, berrikuntza-eremu bakoitzarekin lotutako ehunekoek agerian jartzen dute KSSIen barruko ekintzak askotarikoak direla eta bi itemetarako joera dagoela. Gainera, duela gutxi berrikuntzak egin dituzten kasuek haien berrikuntza ordezkatzeko duen elementu bat aurkitu izanak erakusten du **prozesuen berrikuntzaren kontzeptu estandarra egokia dela** KSSIetarako.

Produktuen berrikuntzari dagokionez, ariketa egiteko kontuan hartu da berrikuntza-arloak kontzeptu hauekin lotuta daudela:

1. Kalitatea
2. Sinesgarritasuna
3. Erabiltzeko erraztasuna
4. Espezifikazio edo prozedura teknikoak
5. Irisgarritasuna
6. Egokitasuna

## 7. Efizientzia erabileran

## 8. Iraunkortasuna

Produktuan berritu duten (aldaketa txikiak nahiz handiak izan) kasuetako batek bakarrik baieztatu du proposaturiko kontzeptuetako bat ere ez datorrela bat haren kasuarekin. Lehen bost kontzeptuei dagokienez, kasuen % 9 eta % 18 bitartean baieztatu dute kontzeptuak ezin zaizkiela haien kasuei aplikatu. Azken bi kontzeptuetan bakarrik atera dira kopuru handiagoak: % 26 eta % 28, hurrenez hurren. «Kalitatearen» eta «sinesgarritasunaren» arloetan, % 50ek baino gehiagok esan dute egindako aldaketak kontzeptu horrekin «guztiz edo ia guztiz bat datozela» (% 57 eta % 55, hurrenez hurren).

Oro har, aplikaezinak direla diotenen ehunekoak prozesuen berrikuntzan baino pixka bat txikiagoak dira oraingoan ere. Horrek zera iradokitzen du: sektorean dagoen dibertsitatea gorabehera, erakundeak, oro har, produktuen berrikuntzak modu estandarrean definitzen dituzten arloek ordezkaturik daude.

Galde sortan beste galdera bat sartu zen, alegia, berrikuntza komunitarioko inkestan jabetza intelektuala babesteko jasotako moduetako zein erabiltzen ziren jakiteko:

1. Marka komertzialak
2. *Copyright*ak
3. *Label*ak
4. Sekretu komertzialak
5. Patenteak
6. Diseinu industrialak

Kasu horretan, aurkitu da % 58k jabetza intelektuala babesteko modu horietako bati heltzen diola, batez ere markak erregistratzeari (% 32) eta egile-eskubideak erreklamatzeari (% 27). Kontu horrek, eta zehazki partida horiek, lotura estua dute kulturaren eta sormenaren arloko jarduerarekin; beraz, forma juridiko horiek erabiltzen dituzten enpresen kopurua gorabehera, ezin hobeki egokitzen dira KSSIetara.

Garrantzitsutzat jotako azken kontuak zerikusia du egindako berrikuntzek erakundearen barruan izan duten inpaktu ekonomikoarekin. Horri dagokionez, berrikuntza komunitarioko inkestako oinarritzko adierazlea honako hau da: azken bi urteak barne hartzen dituen erreferentziako aldiaren barruan aldaketa handiak izan dituzten produktu (zerbitzu, ondasun edo obra artistiko) berrien edo hobetuen ondorioz azken urtean lortutako fakturazio-ehunekoa.

Ia kasu guztietan erantzun baliodun bat lortu den arren (lau kasuk bakarrik baieztatu dute, arrazoi zehatzik eman gabe, galdera hori ezin zaiela aplikatu), zenbait kasutan zailtasun jakin batzuk agerian jarri dira. Hala ere, ez dira kulturaren edo sormenaren arloko eragileak izatearekin lotutako zailtasunak. Adibidez:

- ▶ Bost kasuk hasierako beren jardueraren berezitasuna edo ekintzaitzarekin lotutako beste arrazoi batzuk aipatu dituzte, baita haien proiektuek ondo ebaluatzeko moduko ibilbide nahikorik ez edukitzea ere (epe ertainera eta luzera heldu behar dute emaitzak lortzeko).
- ▶ Kontuan hartu behar da inkesta ez zela enpresa-sektore pribatuko erakundeetara mugatu; hortaz, bost kasuk ohartarazi dute itema ez dela egokia haien inpaktua egokiro neurtzeko.

- ▶ Hiru kasutan aipatu da erabilitako formulazioa ez dela egokia; izan ere, nahasmendua sortzen du «turnover» hitzaren esanahia «enplegatuen higadura» gisa uler daitekeelako, ez bakarrik «diru-sarrera» gisa.

Bai erantzun horiek bai beste batzuk ohartarazten dute neurtu nahi denarekin lotutako item guztien definizio ulergarriak eskaini behar direla, aurretiazko ezagutzarik ziurtzat jo gabe. Berrikuntza-motari buruzko galdera askok definizioak bazeuzkaten arren, guztiek ez zeukaten halakorik.

Ildo horretan, nabarmendu behar da berrikuntza komunitarioko inkestak berak 10 enplegatu baino gehiagoko erakundeetara iragazten duela partaidetza. Ulegarria da erakunde txikienek zailtasun handiagoak edukitzea horrelako barne-emaitez monitorizatzeko, baita erabilitako hizkera behar bezala maneiatzeko ere.

KSSIak, oro har, eragile txiki askoz osatuta daude. Hala, **ekonomiaren aldetik, zailtasun batzuk ez datoz hainbeste jarduera-sektorearen berezitasunetik**, eragile-motaren berezitasunetik baizik.

### **Esparrua zabaltzea KSSIen gaineko inpaktua sartzeko**

Berrikuntza komunitarioko inkestak berak ingurumen-inpaktua ebaluatzeko galdera-mota zehatz bat barne hartzen du. Hain zuzen ere, galdetzen da «X» eremuan (adibidez, uraren erabileraren murrizketan) hauetako zein egin den:

- Aldaketa handi bat
- Aldaketa txiki bat

Aldaketarik ez

Galdera-formatu hori erabili da *Contrast II* azterketako galde-sortan bai inpaktu ekonomikoari buruzko gai gehigarriez (berariazko itemak, produktu berritzaileen ondoriozko diru-sarrerez haraindi) bai gizartearen eta kulturaren arloko kontu berriez galdetzeko, ingurumen-alderdian ezarritakoak mantenduz (4.5.2 eta 4.5.3 apartatuak).

Gizartearen eta kulturaren alderdiei buruzko itemak eraikitzeko, galde-sortak *Contrast* azterketako gogoeta-prozesuak abiarazi zuen esparru kontzeptuala hartu zuen erreferentziazat.

**14 taula. Erakundeei egindako inkestan KSSIek alderdi bakoitzean dituzten inpaktuak ebaluatzeko erakundeei proposaturiko itemak**

**Erakundearen berrikuntzak izan duen ekonomia-inpaktuaren maila**

- Erakundeko enpleguaren gorakada
- Lan-baldintzen hobekuntza
- Erakundearen mozkinen igoera
- Egile-eskubideengatiko edo *copyright* gatiko mozkinen igoera

**Erakundearen berrikuntzak izan duen gizarte-inpaktuaren maila**

- Kulturarako eta sormenerako sarbide-maila igotzea
- Nortasun kolektiboa edo komunitate baten kide izatearen sentimendua sortu edo indartzea
- Askotariko praktika sozialak eta kulturalak sustatzea (dibertsitate soziala)
- Gizarte-berdintasuna sustatzea
- Genero-berdintasuna sustatzea
- Ingurumen-kontuei buruzko kontzientziazio soziala areagotzea
- Osasuna eta ongizatea sustatzea

**Erakundearen berrikuntzak izan duen ingurumen-inpaktuaren maila**

- Materialen edo uraren erabilera murriztea
- Energiaren erabilera edo CO2 aztarna murriztea (CO2 isurien kantitatea murriztea)
- Lurzoruaren kutsadura, kutsadura akustikoa, uraren kutsadura edo airearen kutsadura murriztea
- Materialak gutxiago kutsatzen duten edo hain arriskutsuak ez beste batzuez ordeztzea
- Energia fosilaren zati bat energia berriztagarritz ordeztzea
- Hondakinak, ura edo materialak birziklatzea erabilera edo saltzeko

**Balio intrintseko edo sozial partekatua. Zure berrikuntza-proiektuak...**

- Pertsonen ezagutza handitzen du
- Esperientzia bakan bat sortzen du
- Gobernantza partekatua indartzen du
- Kokatuta dagoen komunitatearen balioak eta sinesmenak aintzat hartzen ditu

Iturria: geuk egina, erakundeei egindako *Contrast II* inkestan oinarrituta

Ateratako datuen arabera, baieztatu daitezke erabilitako diseinua balioduna dela KSSiek beren balio sozial eta kulturalak direla-eta duten bitxitasuna ikusgai egiteko.

Lortutako itemen bidez ateratako emaitzak (txosten honetako 4.5.2 eta 4.5.3 blokeak) bat datoz hasierako hurbilketa orokor batean deskribatutako joerarekin (4.5.1 blokea):

- Gizarte-inpaktu altua, ekonomia-inpaktua baino pixka bat altuagoa.
- Ingurumen-inpaktu mugatua gainerako alderdiekin erkatuta.
- Kultura-inpaktu egokia (balio intrintseko eta sozial partekatua) osagai nagusi gisa.

Ingurumen-inpaktua dela-eta, nabarmendu behar da KSSIen ekarpena modu estandarrean neurtzen denaren desberdina izan daitekeela, azken hori oso alderdi industrialei dagokielako eta KSSIetako eragile eta sektore askok ez daukatelako ezaugarri hori.

Ildo horretan, hiru arrazoi egon daitezke inpaktu mugatu hori azaltzeko:

- Itemen egokitasunik eza: inpaktu mugatuaren arrazoia izan daiteke ez dela neurtzen sektorearekin edo eragile-motarekin lotutako gai garrantzitsu zehatzik.
- Gai horiei buruzko bigarren mailako eta lehentasun txikiagoko interesa: inpaktu mugatuaren arrazoia izan daiteke ez dagoela horrelako inpaktuetan sakontzeko interesik.
- Ezagutzarik, baliabiderik edo gaitasunik eza: inpaktu mugatuaren arrazoia izan daiteke ez dagoela alderdi hori lantzeko bitartekorik.

Gogoeta sakontzeko, aipatu behar da gizarte-alderdian ingurumen-alderdiarekin lotutako item bat sartu zela. Izan ere, horrexek dauka inpakturik txikiena gizarte-alderdiaren barruan («ingurumen-kontuei buruzko sentsibilizazio soziala»). Baliteke horrek iradokitzea ingurumen-alderdia proiektu edo sektore batzuetan bakarrik aurkitzen dela, ez sektore guztian. Era berean, adierazi da osasunarekin lotutako itemak daukala inpaktu txikiena. Bestalde, gizarte-berdintasuna eta genero-berdintasuna askoz ere hedatuagoak daude sektore guztian, eta adierazitako inpaktua ingurumenari eta osasunari esleitutakoa baino handiagoa da.

Nolanahi ere, inpaktuaren neurketaren ikuspegi teknikitik, argi dirudi **inkestan erabilitako diseinuak KSSIek potentzialtasunei eta zailtasunei dagokienez dituzten ezaugarriak agerraraz ditzakeela** (14. taula). Izan ere, proposaturiko itemei buruzko *feedbacka* biltzeko diseinatutako galdera irekietan ez da egon ez zalantzarik ez kontrakorik dion iruzkin nabarmenik (hau da, item desegokiak edo ulertezinak direla dionik).



## Amaierako iruzkina

Ikerketa labur honek, ikuspegi teknikotik ikuspegi kontzeptualetik baino gehiago, erakusten du berrikuntzaren neurketa estandarra baliioduna dela KSSIetarako, nahiz eta mugak eduki. Galdera da nola heldu muga horiei.

Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da ezarritako esparruetan parte hartzeak ekonomiaren multzoan estandarizatzeko baliagarria izan behar duela eta dauden mugak ez direla nahikoak osotasunaren zati izateari uko egiteko. Mugek sektoreko alderdi zehatz batzuk ez bistaratzearekin dute zerikusia. Horri dagokionez, azpimarratu behar da sektorearen berezitasunetara ez egokitzea ez dela bakarrik KSSIekin gertatzen. Beste sektore batzuetan ere egon daiteke egokitasun-falta.

Ildo horretan, sektorearen muga zehatz bat lotuagoa dago eragile-mota hedatuenarekin jardueraren izaerarekin baino:

- Adibidez, berrikuntza komunitarioko inkesta 10 enplegatu baino gehiagoko enpresetara mugatzen da, informazio zehatzagoa eta osoagoa biltzea ahalbidetzen dieten antolaketa-egiturak eta baliabideak dauzkatelakoan. Era berean, eragile-mota horrek I+G arloko inbertsioan eta teknologia berrien erabileran zeregin aktiboagoa du eta langile espezializatuak edukitzeko baliabide gehiago ditu.
- Bestalde, sektorearen beste ezaugarri bat haien eragileen izaera juridikoa da: ekosistema, hein handi batean beste sektore batzuekin erkatuta, eragile publikoz eta hirugarren sektoreko eragile pribatuz osatuta dago. Hala, kulturaren eta sormenaren ekosistemaren zati hori ere berrikuntzari buruzko inkestek egin ohi duten behaketatik kanpo geratzen da, inkestok eragile komertzial pribatuetan ardaztuta egoten direlako.

Mugak ikusita, kontuan hartu behar da, lehenik eta behin, beste eragile-mota eta inpaktu-mota batzuk ikusgai egiteko asmoa ezin dela nagusiki justifikatu KSSIetara egokitzeko beharrarekin: horretaz haraindi begiratu behar da. **Ezarritako esparruak parametro berrietara egokitzeak baliagarria izan beharko luke berrikuntzarekin lotutako ekonomiaren gaineko begirada desberdin eta osoago bat bultzatzeko.** Hala, ikusgai egiteko estrategiak arrazoi zabalagoak aitortzea barne hartu behar du, beste sektore batzuekiko konplizitatea areagotzeko bidea emateko.

**Bigarrenik, horrelako mugek ekintza berriak bultzatzen jarraitu behar dute, sektorea bera hobeto ulertzeko helburuarekin eta modu argian eta zehatzean, lausotasunak eta funtsik gabeko diskurtsoak saihestuz, azaltzeko balio duten espazio eta arrazoi propioak bilatzeko xedearekin.**



## IV. ZATIA AMAIERAKO SINTEZIA



## 7. Nabarmentzekoak

## 7.1 Laburbilduma: helburuak, metodologia eta hipotesiak

*Contrast* proiektua bi fasetan garatu da (azterketa pilotua eta oraingo azterketa zabaldua), eta, haren helburu nagusiekin bat etorriz, txosten honetan sakonago eta sistematizazio handiagoarekin aztertu dira KSSIen berrikuntza-inguruneak eta berrikuntza-motak.

Eskualdeen eta kasuen dibertsitateak ahalbidetu du analisia jarrera objektibo batekin eta aurreiritzirik gabe egitea. Lagina ikerketaren helburuetarako esanguratsua da, nahiz eta estatistika soilari begira adierazgarria ez izan, teorikoa baizik.

Bestalde, *ad hoc* diseinatutako bi galde-sorten bidez erabilitako metodologiak bidea eman digu sektore guztiek partekatzen dituzten elementuak bistaratu eta aztertzeke eta KSSIen berezkoak arakatzeko. Tresna horien bitartez, duela hiru urte hasitako gogoeta teorikotik abiatuta proposatutako funtsezko gaiak modu objektiboan ezagutu ditugu eta sektore horietako berrikuntzaren errealitatera eraman ditugu. Gainera, ikerketa ez da mugatu egoeraren erretratu bat egitera (hori berez oso baliotsua den arren); aitzitik, KSSIetako berrikuntza etorkizunean testuinguru bakoitzean garatzeko dauden oztopoen eta aukeren izaera kualitatiboari buruzko ekarpenak ere egin ditu.

Berriro ere **testuinguruak bi mailatan duen eraginari** (lehenik, eskualdeko testuinguru globalak KSSIen testuinguru zehatzean duen eragina eta, bigarrenik, KSSIen testuinguru zehatzak berrikuntza-motan eta berrikuntza-prozeduretan duena), **buruzko azterketaren hasierako hipotesiei** begira, **ebidentzia partziala da.**

Azterketak berretsi du badagoela korrelazio bat testuinguru orokorren eta KSSIetako berrikuntza-testuinguruen artean, baina **testuinguru zehatzen eta berrikuntzaren arteko korrelazioa ez da hain argia kasu-mailan**. Ez dago erlazio linealik azken alderdi horren eta kasuen berrikuntza-mailaren artean. **Maila honetan, harremana kualitatiboagoa da (nola berritzen den) kuantitatiboa baino (inpaktua)**.

## 7.2 Testuinguruekin eta ekosistemekin lotutako aurkikuntzak

KSSIetako berrikuntza-ekosistemetan zeharka nagusi diren zenbait alderdi orokor daude:

- **KSSIetan berrikuntza babestu eta sustatzeko estrategiak kultura-eremuko berariazko eragileek zuzentzen dituzte nagusiki**. Berariazko eragileek nagusiki zuzentzen ez dituztenean, eragile jeneralistekin batera zuzenduta egoten dira. Lidergoa ez dator eragile jeneralistetatik aztertutako ekosistemetako ezeinetan. **Nolabaiteko espezializazio-beharrari buruzko kontzientzia-maila altua dago**.
- **Inkubagailuak, klusterrak eta babes ekonomikoko programak dira KSSIetarako berariaz diseinatutako neurri-mota hedatuena**. Gainerako neurrietan, oro har, KSSIak barne hartzen dira, baina ez dira programen onuradun bakarrak. Parke zientifiko eta teknologikoetan daude gutxien sartuta.

KSSIetarako berariazko tresnak badaudenean, kulturaren eta sormenaren arloko eragileek badute haien berri eta beren berrikuntza-proiektuak bultzatzeko erabiltzen dituzte.

- Diruz bestelako babesak tokiko eta eskualdeko administrazio-mailetan da nagusi. Diru bidezko babesak goiko administrazio-mailek (estatukoek eta nazioartekoek) bultzatzen dute nagusiki.

Testuinguru orokorragoetan, berrikuntza, bere desberdintasun posibleekin, aztertutako eskualde guztietan dago. Babes-ekosisteman indar handiagoa (emaitza hobekak) eta berezitasun handiagoa (baldintza hobekak) egoteak ez du nahitaez esan nahi berrikuntza handiagoa dagoenik, **baina badauka efektu logiko bat, berrikuntzarako onuragarriagoa den dinamika bat sustatzen baitu:**

- Aztertutako eskualdeetan, beren berezitasunekin, ikusi da **laugarren helizearen berrikuntza irekiaren eredia (gubernua-unibertsitateak-industria-sozietate zibila) onartzen dela**, eta hori oso koherentea da KSSIen ezaugarriekin, haien gizarte-eragin handia kontuan hartuta.
- Kanpoko beste faktore batzuek (sozialek eta ekonomikoek, makroek edo testuingurukoek) emaitzei eragin diezaieketen arren, KSSIetara egokituagoa dagoen (bereziagoa den) berrikuntza-ekosistema batek **ehun berritzailea eta ekimen berritzaileen dentsitate handiagoa sortzen laguntzen du.**
- Aitzitik, ekosistema hauskorragoa eta KSSIen berezitasunetara ez hain egokitua eduki arren, oso proiektu berritzaileak sor daitezke, orobat inpaktu nabarmenak dituztenak. **Babes-egiturak dituen testuingururik ez dagoenez, eragileek berrikuntza-proiektuak beren baliabideekin bultzatzeko moduak bilatzen dituzte.** Itzulkin ekonomiko handiena lortzen duten proiektuak dira. Esan daiteke **ez dutela porrot egiteko lizentziarik eta, emaitzak ikusita, ez dute porrot egiten.**

Ondorioz, KSSIetarako diseinatuta eta zuzenduta dauden berrikuntzari laguntzeko tresnarik ez egoteak ez du eragozten proiektu berritzaileak sortzea. Izan ere, inpaktu handiena dutenetako batzuk goraka ari diren testuinguruetan agertzen dira. Dena den, **aldeko ekosistema bat edukitzeak berrikuntzaren aldeko dinamika bat sortzen du, berrikuntzaren arloan aurrera egitea sustatzen duen ildo berezi bat.**

Egia bada ere esparru sozioekonomiko orokor bat KSSIen ekosisteman eragin onuragarria izan dezaketen elementuez kanpoko faktore bat dela, berrikuntza ez da testuinguru horietan bakarrik agertzen: **berrikuntza leku guztietan sortzen da, KSSIetako erakundeen DNAren zati da eta edonon daudela ere ikus daiteke.**

## 7.3 Berrikuntza-motekin lotutako aurkikuntzak

Kasuen erdiek baino gehiagok **jarduera berritzaile bizia** daukate eta adierazi dute bai produktuan bai prozesuan aldaketa handiak egin dituztela. Hala, KSSIetan **berrikuntza nagusiki konbinatua izaten da**. Badirudi egitate hori KSSIetako erakundeen proiektu-motarekin lotuta dagoela; izan ere, haien produktua batez ere zerbitzuak dira eta, prozesuaren berrikuntzaren aldetik, hobekuntzak mota horretako proiektuekin lotuta daude.

Berritzeko prozedurak direla eta, honako hau da nabarmentzekoa:

- Maila altuko berritze-profiletan, **norberaren baliabideek oso pisu handia daukate.**
- **Zenbat eta gehiago berritu,** orduan eta **babes handiagoa** ikusten da **berariazko I+G baliabideetan**. Gaitasunek zeregin garrantzitsua dute jarduera berritzailearen sustapenean.

- **Erakunde berritzaileenek gehiago heltzen diote lankidetzari berritzeko.**
- **Azkenik, zenbat eta biziagoa izan berrikuntza-profila, orduan eta handiagoa da berrikuntzara zuzendutako teknologiaren erabilera.**
- **Sektore arteko berrikuntza nahiko zeharkakoa da berrikuntza-profil guztietan: hamar kasutik hiruk beste sektore batzuentzat berritzen dute.**
- **Marka komertzialen erregistroa eta egile-eskubideak dira KSSIetan jabetza intelektuala babesteko gehien erabiltzen diren moduak; etiketen eskurapena, sekretu komertzialak, patenteen erregistroa eta diseinu industrialak, berriz, ez dira hain garrantzitsuak.**

Berrikuntzaren balioari eta inpaktuei dagokienez, ikusi da **berrikuntzak itzulkin ekonomiko nabarmena dakarkiola** KSSIetako eragileei: haien diru-sarreraren % 59,1 aldaketa handiak aplikatu zizkieten produktuetatik etorri ziren. Hala:

- KSSIetako berrikuntzak, emaitza onuragarri indibidual edo pribatuak (agregatuta orokorrak ere badirenak) ez ezik, **kanpo-efektu positibo garrantzitsuak ere sortzen ditu, batez ere gizartearen eta kulturaren arloan.** Horrek bitxia egiten du KSSIetako berrikuntzaren balioa.
- Motibazioei begiratuta, joera edo foku ez-ekonomikoa argi eta garbi ikusarazi da. **Berritzera daramaten arrazoiak ez dira nagusiki ekonomikoak, alderdi hori ere badagoen arren.** Arrazoi ekonomikoak maila baxuko eta maila ertain-baxuko berritzaileen profilek dauzkate; maila erdi-altuko eta maila altueneko berritzaileek (lagineko gehienek), aldiz, kulturarekin, gizartearekin, hezkuntzarekin eta abarrekin lotutako motibazioak dauzkate batez ere.



- Berrikuntzaren inpaktuei dagokienez, soziala nagusitzen da, ekonomikoarekin konbinatuta; beraz, ondorioztatu da alderdi soziala eta ekonomikoa ez direla elkarren aurka lehiatzen. Ingurumen-inpaktua maila baxuago batean dago.

Azkenik, azpimarratzekoa da **erakundearen barruko finantzaketa-falta (edo beste iturri pribatu batzuetakoa) jotzen dela berritzeko oztopo nagusitzat**. Garrantzitsua da hori kontuan hartzea, hamar kasutik zazpi beren bitarteko eta baliabideen bidez berritzen baitute.

## 7.4 KSSIetako berrikuntzaren neurketari buruzko oharrak

Galde-sortak diseinatzean barne hartu zen galdera-multzoak asmo bikoitza zuen: batetik, alderdi jakin batzuk ezagutzea eta, bestetik, haien funtzionamendua baloratzea. Galdera-multzoa honetarako izan da baliagarria:

- Baloratzea KSSIEk sentitzen duten berrikuntza neurtzeko ezarritako esparruetan erabilitako kontzeptu estandarrek ordezkatzeko dituztela.
- Arakatzeko ezarritako esparruekin bat etorritik KSSIen berezitasuna nabarmentzeko gehitu diren elementu berriak egokiak izan diren.

Emaitzek agerian jarri dute **berrikuntzaren neurketa estandarra balioduna dela KSSIetarako, nahiz eta mugak eduki**. Galdera da nola egin aurre muga horiei; izan ere, ez dira nahikoak osotasunaren zati izateari uko egiteko eta homologatutako eta ekonomia osora hedatutako prozesu eta kontzeptuetatik kanpo bizitzeko.

Ikusi da **sektorearen berezko muga batek zerikusi handiagoa duela** hedatuen dagoen **eragile-motarekin** (eragile txiki asko egotea eta eragile publikoak eta hirugarren sektorekoak garrantzitsuak izatea) haien jardueraren izaerarekin baino.

Beste eragile-mota eta inpaktu-mota batzuk ikusgai egiteko erreibindikazioa ezin da nagusiki justifikatu KSSIetara egokitzeko beharrarekin: horretaz haraindi begiratu behar da. **Ezarritako esparruak parametro berrietara egokitzeak baliagarria izan behar du ekonomiaren gaineko begirada desberdin eta osoago bat indartzeko.** Hauxe da, hain zuzen ere, sektorearen berezitasunetako bat: ekonomiaz bestelako arrazoen pisua.

Horrelako mugek **ekintza berriak** sustatzen jarraitu behar dute, **sektorea bera hobeto ulertzeko helburuarekin eta** modu argian eta zehatzean, lausotasunak eta funts eskaseko diskurtsoak saihestuz, **azaltzeko balio duten espazio eta arrazoi propioak bilatzeko xedearekin.**



# ERANSKINAK

## 1. ERANSKINA. Laginak eta galde-sortak

### Eskualdeen azterketa

Eskualdeko koordinatzaileentzako galde-sorta digitalki banatu zen (LimeSurvey) 2023ko otsailaren 21aren eta maiatzaren 23aren artean.

16 kasuk erantzun zuten, honako eremu global hauetan banatuta:

Herrialdea	Australia	Kolonia	Danimarka	Estonia	Finlandia	Alemania	India	Italia	Kenya	Portugal	Hegoafrika	Espainia	Uganda	Erresuma Batua	AEB	AEB
Kasu mota	Eskualdea	Eskualdea	Herrialdea	Herrialdea	Herrialdea	Eskualdea	Eskualdea	Eskualdea	Herrialdea	Eskualdea	Eskualdea	Eskualdea	Herrialdea	Eskualdea	Eskualdea	Eskualdea
Kasua	Hegoaldeko Australia	Antioquia	Danimarka	Estonia	Finlandia	Baden-Württemberg	Karnataka	Apulia	Kenya	Ipar-eskualdea	Mendebaldeko lurmuturra	Valentziako erkidegoa	Uganda	CCR Cardiff Hiriburu Eskualdea (CCR)	Washington	Kalifornia

Europa	Afrika	Asia eta Ozeano Barea	Ipar Amerika	Latinoamerika
<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Baden-Württemberg (Alemania)</li> <li>&gt; Cardiff (CCREB)</li> <li>&gt; Valentziako erkidegoa (Espainia)</li> <li>&gt; Danimarka</li> <li>&gt; Estonia</li> <li>&gt; Finlandia</li> <li>&gt; Ipar-eskualdea (Portugal)</li> <li>&gt; Apulia (Italia)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Kenya</li> <li>&gt; Mendebaldeko lurmuturra (Hegoafrika)</li> <li>&gt; Uganda</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Hegoaldeko Australia (Australia)</li> <li>&gt; Karnataka (India)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Washington (AEB)</li> <li>&gt; Kalifornia (AEB)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Antioquia (Kolonbia)</li> </ul>

## Inkesta koordinatzaileei:

### A) Informazio-iturriak

Honako hauei buruzkoak dira galderak hasierako bloke honetan:

1. Gaur egungo estatistika-erakunde ofizialak.
2. Kulturaren eta sormenaren sektoreei buruzko gaur egungo estatistikak.
3. Arlo honetan dauden kultura-behatokiak eta ikerketa-erakundeak.
4. Egokia den bestelako informazioa, hala nola txostenak, erakundeak, eta abar.

Kasu bakoitzean, identifikazio-erreferentziak ematea eskatzen da, izenekin eta webgune-loturekin.

Zein dira eskualdeko estatistika-erakunde ofizialak? Barnean hartu webgune-estekak.
Berrikuntzarekin lotutako estatistikaren bat ezagutzen duzu eskualdean edo herrialdean?
<input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/> Ez dakit
Zein? Barnean hartu webgune-estekak.
Badago estatistikarik kulturaren eta sormenaren sektoreetako enpresa edo enplegu kopuruari buruz? Espezifikoak edo ez, baina bereziki kulturaren eta sormenaren sektoreak aztertze ko gaitasunarekin.
<input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/> Ez dakit
Zein? Barnean hartu webgune-estekak.
Badago behatoki edo ikerketa-erakunde espezifikorik kulturaren eta sormenaren sektoreen esparruan?
<input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/> Ez dakit
Zein? Barnean hartu webgune-estekak.
Badago beste informazio garrantzitsurik KSSiei edo berrikuntzari buruz? (Txostenak, instituzioak, erakundeak). Baiezkoa bada, idatzi ondoren eta barnean hartu webgune-estekak.

## B) Eskualdearen posizionamendua berrikuntzaren eta KSSIen arloan

Eskualdeak berrikuntzaren eta KSSIen arloan duen posizionamendu-blokeak koordinatzailearen ikuspegi subjektibo bat hartzen du barnean, koordinatzaile hori funtsezko informatzailea denez.

Honako zeregin hauek gauzatzen dira atal labur honetan:

1. Eskualdearen kultura- eta sormen-testuinguruaren hainbat alderdi ebaluatzen dira balorazio-eskala batean.
2. KSSIen garapen-etapa batean sailkatu behar da eskualdea honako kalifikazio hauek bereiziz: emegentea, neurritsua, aurreratua edo abangoardista.

Koordinatzaileak bere eskualdean garrantzitsu gisa identifikatzen dituen aukerei eta mugei buruzko bi galdera ireki hartzen dira barnean.

Zure iritziz, 1etik 7rako eskala batean (erabateko desadostasuna eta erabateko adostasuna, hurrenez hurren), zer pentsatzen duzu esaldi hauen inguruan?

	1	2	3	4	5	6	7
Eskualdeko administrazioak garrantzi estrategikoa ematen dio berrikuntzari.							
Eskualdeko administrazioak garrantzi estrategikoa ematen die kulturaren eta sormenaren sektoreei.							
Eskualdeko kulturaren eta sormenaren sektoreek egitura-maila eta antolaketa-maila altuak daukate.							
Kulturaren eta sormenaren sektoreek ekarpen garrantzitsua egiten diote eskualdeko lehiakortasunari.							
Eskualdeko kulturaren eta sormenaren sektoreen nazioartekotzea sustatzen da.							
Kulturaren eta sormenaren sektoreetako berrikuntzari emandako babesa nabarmena da eskualdean							
Kulturaren eta sormenaren sektoreek beste sektore batzuekin baterako							

proiektuetan parte hartzea sustatzen da								
Kulturaren eta sormenaren sektoreei buruzko prestakuntza hezkuntza-sisteman barne hartuta dago.								
Nola balioesten da kulturaren eta sormenaren sektoreen garapena eskualdean?								
<input type="checkbox"/> Emergentea <input type="checkbox"/> Neurritsua <input type="checkbox"/> Aurreratua <input type="checkbox"/> Abangoardista <input type="checkbox"/> Beste erantzun bat: _____								
Labur azaldu dezakezu zein elementu hartzen dituzun kontuan balorazio hau egiteko?								
Zer aukera ikusten dituzu KSSIak eskualdean garatzeko?								
Eta zer mugaketa eta erronka ikusten dituzu eskualdean?								

**C) Ikuspegi estrategiko orokorra**

Honako hauek aztertu nahi dira bloke honetan:

- Implikatutako eragileen mota:
  - o Kulturalak edo ez-kulturalak

- Ez-espezifikokoak (hala nola ministerioak) edo espezifikokoak (agentziak)
- Inplikaturako administrazio-mailak
- Planik edo estrategiarik ba ote dagoen

Galderak barnean hartzen dira eragile bakoitzak jokatzen duen rola bereizteko. Beharrezkoa bada, informazio osagarria gehitu daiteke erreferentziak eta webgune-estekak adieraziz.

Zein dira eskualdeko garapen ekonomikoari eta berrikuntzari buruzko politika eta programetan inplikaturako arlo edo sail nagusiak? (Kultura-esparrukoak ez diren beste esparru batzuetako ministerio, sail edo erakundeak)								
Eta kulturen eta sormenaren sektoreetako esparru espezifikotan, zein dira politikak eta programak garatzen dituzten eragile nagusiak? (Ministerioen, sailen edo beste kultura-erakunde batzuen zehaztapena)								
Zer eragile motak burutzen dituzte politika aktiboak eskualdeko kulturaren eta sormenaren sektoreetan?								
<input type="checkbox"/> Kultura-esparrukoak ez diren ministerio, arlo edo sailak <input type="checkbox"/> Kultura-esparruko ministerio, arlo edo sailak <input type="checkbox"/> Izaera orokorreko garapen-agentziak edo antzekoak (hainbat sektore) <input type="checkbox"/> KSSIetan espezializatutako garapen-agentziak edo antzekoak <input type="checkbox"/> Beste erantzun bat. Izendatu eragileak:								
1etik 7rako eskala batean (garrantzi gutxikoa eta garrantzi handikoa, hurrenez hurren), zer rol daukate eragileek kulturaren eta sormenaren sektoreetarako estrategien garapenean?								
	Ez dago eragile aktibo gisa hautatuta aurreko galderan	1 Garrantzi gutxikoa	2	3	4	5	6	7 Garrantzi handikoa



Kultura-esparrukoak ez diren ministerio, arlo edo sailak								
Kultura-esparruko ministerio, arlo edo sailak								
Izaera orokorreko garapen-agentziak edo antzekoak (hainbat sektore)								
KSSIetan espezializatutako garapen-agentziak edo antzekoak								
Beste erantzun bat								

1etik 7rako eskala batean (garrantzi gutxikoa eta garrantzi handikoa, hurrenez hurren), zer rol dauka administrazio-maila bakoitzak KSSIei zuzendutako dirutan ematen ez den laguntzari dagokionez (azpiegitura, aholkularitza, prestakuntza, eta abar)?

	1 Garrantzi gutxikoa	2	3	4	5	6	7 Garrantzi handikoa
Tokiko administrazioa							
Eskualdeko gobernua							
Estatuko gobernua							
Nazioartea							

1etik 7rako eskala batean (garrantzi gutxikoa eta garrantzi handikoa, hurrenez hurren), zer rol dauka administrazio-maila bakoitzak KSSIei zuzendutako dirutan ematen den laguntzari dagokionez (laguntzak, dirulaguntzak, kreditu-lineak, zerga-pizgarriak, eta abar)?

	1 Garrantzi gutxikoa	2	3	4	5	6	7 Garrantzi handikoa
Tokiko administrazioa							
Eskualdeko gobernua							
Estatuko gobernua							
Nazioartea							

Badago plan edo estrategia publikorik kulturaren edo sormenaren sektoreak osorik edo zati batean eskualdeko garapen ekonomikoan lehenetsun estrategiko gisa barnean hartzen dituenik?

